	Inkestak	Instalazioak	Aurkezpina	Azalpena	Materiala	Denbora	Interesgarria	Erabakia hartzen laguntzen du	Ezagutza areagotzen du	Gomendatzeko modukoa
Geología en Acción / Geología Bizirik	28	9	8,8	8,3	8,8	8,4	8,6	7,4	8,7	8,3
Física + IE en Acción / Fisikaz + IEz Blai	128	7,9	7,9	7,8	8,1	8	8,3	5,5	6,9	7,4
Química + IQ en Acción / Kimika Bizirik	187	8,7	9	9,1	9,1	8,9	9,1	6,7	7,9	8,8
Matematika Tailerra	11	9,2	8,9	8,7	9,3	9,1	9,5	6,5	8,4	8,7

Ate Irekien Jardunaldiak

Martxoaren 10ean (Bizkaiko ikastetxeetako ikasleentzat) eta 12an (Arabako eta Gipuzkoako ikastetxeetako ikasleentzat) egin ziren. 2013/14 ikasturtean iaz ezarritako izena emateko sistema erabili da, web orrialdearen bidezkoa, Ate Irekien Jardunaldietan parte hartu ahal izateko. Hobekuntza horren asmoa, bertaratuko direnen aurreikuspenaren eta benetan bertaratzen direnen arteko aldea murriztea da. Guztira 743 ikasle bertaratu ziren (460 euskaraz eta 283 gaztelaniaz), eta Dekanotza Taldeak egin zien harrera, ZTF-FCTko Paraninfoan. Unibertsitateko kide hauek hartu zuten parte jardunaldien antolaketan, titulazioetako koordinatzaileen zuzendaritzapean: 30 ikasle laguntzaile, 108 irakasle, AZPko 4 langile eta prestakuntza prozesuan dauden 22 ikertzaile. ZTF-FCTko informazio saioaren batez besteko balioespina 7,22 puntukoa izan zen (1etik 10erako eskalan). Zalantzak argitzeko moduak 7,1 puntu jaso zituen eta jardunaldi hauek erabakitze orduan ematen duten laguntzak 6,9 puntu (1etik 10erako eskalan).

Bigarren hezkuntzako ikastetxeetako aurkezpina (BHI)

Dekanotza Taldeak eta Fakultateko irakasleek ikastegia ezagutarazteko politika aktiboa egiten jarraitu dute. Horretarako, ikastetxe estrategikoetan eta hala eskatu zutenetan izan dira. 2013/2014 ikasturtean Fakultateko graduei buruzko informazioa eman zaie Euskal Autonomia Erkidegoko 22 ikastetxetako 600 ikasle ingururi. 4. taulan agertzen da jarduera horrek azken urteotan izan duen bilakaeraren laburpena.

4. taula.- Azken ikasturteetan bisitatutako ikastetxeen eta Fakultatean ematen diren titulazioei buruzko informazioa jaso duen ikasle kopuruaren laburpena.

Ikasturtea	Ikastetxeak	Parte hartu duten irakasle eta ikertzaileak	Informatutako ikasleak
2008/09	13	9	342
2009/10	13	15	451
2010/11	19	20	470
2011/12	13	12	580
2012/13	14	14	415
2013/14	22	12	600

2013/14 ikasturtean, ikastetxe bakoitzarentzako informazio saio indibiduala eskaintzeko modua aldatu egin da. Galde-sorta bat barne hartzen duen web orrialde bat sortu da, ikastetxe bakoitzaren informazio beharrak jasotzeko. Galde-sorta betetzen eta bidaltzen den unean, formularioa ikasleen eta Nazioarteko Harremanen arloko Dekanotzara iristen da. Datak, interesa duten ikasleak eta zein graduri buruzko informazioa eman behar den aurreikusten da. Modu horretan, bisitaldiak arrazionalizatzea eta ikasleen interesekiko egokiagoa den informazioa eskaintzea lortu dugu.

Informazio bisitak eskatzen dituzten ikastetxe estrategikoen datu-base bat prestatzen ari gara eta, bertan, Fakultateko enbaxadore lanetan aritu diren irakasleak adieraziko ditugu. 2013/2014 ikasturtean ondorengoak aritu dira enbaxadore lanetan: Manu Soto, Jose Luis Ayastuy, Karmele Urtiaga, Ines Arana, Maria Jose San José, Juan R. González Velasco, Ibon Sagastabeitia, Olatz Zuloaga, Efraim Reyes, Andrés Aguayo, Osane Oruetxebarria eta Josu Mirena Igartua.

Zientzia Olinpiadak

Batxilergoko ikasleak zientzien ikasketan barneratzea eta inplikatzeari dute helburu eta, horrekin batera, gaur egun duten garrantzia nabarmentzea. 2014ko Euskal Zientzia Olinpiadak urtarril eta martxo artean egin ziren: Matematika (urtarrilaren 17an), Geologia (urtarrilaren 17an), Biologia (urtarrilaren 25ean fase teorikoa eta otsailaren 5ean praktikoa), Fisika (otsailaren 28an) eta Kimika (martxoaren 21ean). Guztira, bigarren hezkuntzako 50 ikastetxek eta 220 ikaslek parte hartu zuten, eta irakasle hauek aritu ziren Olinpiaden koordinatzaile gisa: Arturo Apraiz (Geologiako Olinpiada); Sergio Seoane, Ana Puente eta Beñat Zaldibar (Biologiako Olinpiada); Raul Pérez (Fisikako Olinpiada); Pascual Román (Kimikako Olinpiada); eta Pedro Alegría eta Jesús Gómez Ayala (Matematikako Olinpiada).

Eskerrak emateko ekitaldia maiatzaren 16an izan zen, Zientzia eta Teknologia Fakultateko Paraninfoan, eta 200 pertsonak baino gehiagok parte hartu zuten bertan: ikasleak, irakasle prestatzaileak, ikastetxeetako zuzendariak, AVEQeko presidente Izaskun Astondoa, ikasleen familiako kideak eta irakasle laguntzaileak. Dekanoa izan zen ekitaldiko buru, Ikerketaren arloko errektoreorde Fernando Plazaola Muguruzak lagunduta. Ekitaldian, Roberto Aguado irakasleak "Ingeniería Química: El potencial químico de la ingeniería, IQ = ing" hitzaldia eskaini zuen.

Unibertsitate Orientaziorako Azokak (UOA)

Zuzendaritza Taldeak eta Fakultateko irakasle eta ikertzaileek parte-hartze aktiboa izan dute UPV/EHUko Ikasleentzako Argibide Zerbitzuak hiru campusetan antolatutako azoketan (Gipuzkoan urtarrilaren 18an, Araban urtarrilaren 25ean eta Bizkaian otsailaren 1ean). Batxilergoko ikasleak eta haien familiak joan ohi dira jardunaldi horietara. Bertaratu zirenek 10etik 8,74 puntuko batez besteko balorazioa eman zuten asebetetze inkestan (485 iritzi jaso genituen). 5. taulan, Fakultateko langileek azken urteotako UOAtan izan duten parte-hartzea ageri da.

Hona hemen parte hartu zuten irakasleen zerrenda: Aitziber Anakabe, Sonia Álvarez, Pedro Pablo Gil, Maren Ortíz, Begoña González Moro, Ana Basaguren, Mercedes Herrera, Mertxe Martínez, Inés Arana, Ana Isabel Puente, Ainhoa Alonso, Amparo Varona, Ana Aguirre, Andrés Aguayo, Isabel Salcedo, Joaquín Portilla, José Luis Ayastuy, Luis Angel Ortega, Manu Soto, Xabier Murelaga, Isabel Salcedo, Gustavo Fernández, Nerea Gutierrez, Gorka Elordi, Roberto Aguado, Nerea Otegi; baita Dekanotza Taldeko kide guztiak ere.

5. taula.- Zuzendaritza Taldeak eta irakasle eta ikertzaileek Unibertsitate Orientaziorako Azoketan izandako parte-hartzearen bilakaera.

Ikasturtea	Parte hartu duten irakasle eta ikertzaileak
2008/09	18
2009/10	22
2010/11	25
2011/12	26
2012/13	31
2013/14	36

Beste jarduera batzuk

Geologiako Mari Cruz Zuluaga, Luis Ortega, Ainhoa Alonso eta Xabier Murelaga irakasleek "Irteera Geologikoa Leioan" antolatu zuten, 2014ko maiatzaren 9an, udalerriko ikasleentzat, Leioako Hezkuntza Komunitateak gonbidatuta.

2.03, Onarpena eta matrikulazioa

Aurtengo ikasturtean (2014/2015), guztira 634 ikasle **matrikulatu dira** lehenengo mailan ZTF-FCTn (6. taula). Ikasleen gradukako banaketak ikastegiak azken urteotan egin dituen proposamenek izan duten harrera ona eta arrakasta baieztatzen du.

6. taula.- Lehenengo mailan matrikulatutako ikasle berrien urte arteko bilakaera.

Urtea	Jaiotza urtea	BI	EAE	Biol.	Biok. eta BM	Biotek.	Fis.	Geol.	IE	IK	Mat.	Kim.	F+IE	Guztira
2007	1989	9.024	17.024	178	-	-	61	18	-	29	43	77	-	406
2008	1990	8.724	16.361	169	-	-	47	30	-	32	42	56	-	376
2009	1991	8.557	16.228	178	-	-	38	35	-	17	68	58	-	394
2010	1992	8.587	16.250	83	41	38	83	43	49	75	80	78	-	570
2011	1993	8.203	15.801	111	52	58	85	52	36	59	78	80	-	601
2012	1994	8.792	17.067	98	43	40	82	46	55	78	78	77	-	597
2013	1995	8.526	16.750	102	47	42	83	46	47	79	79	78	-	603
2014	1996	8.812	17.357	106	53	40	74	51	40	80	86	80	24	634

- 18 urte betetzen dituzten ikasleen jaiotza urteari dagokion jaiotza tasa, Bizkaiari (BI) eta Euskal Autonomia Erkidegoari (EAE) dagokienez. Iturria: EUSTAT (www.eustat.es).
- Ikasle berrien matrikulazio datuak 2014ko azaroaren 24an. Iturria: ARTUS.

Bestalde, "ikasle berrien" artean bigarren ikasketak egiteko sartzen diren edo beste titulazio batetik igaro diren ikasleak (aurrekoa utzi egin dutelako edo biak batera egingo dituztelako) kontuan hartzen baditugu, 2014/15 ikasturteko ikasle berrien kopurua 693koa da.

2014ko irailaren 5ean, Fakultateko Paraninfoan, ikastegian matrikulatutako ikasle berrientzako ongietorri ekitaldi bat egin zen. Ekitaldian 553 ikaslek hartu zuten parte (deialdia egin zitzaienen % 87) eta lehen mailako Irakaskuntza Gida entregatu zieten. Titulazio bakoitzeko koordinatzaileak eta lehen mailako koordinatzaileak ere izan ziren bertan, baita beren borondatez bertaratutako goragoko mailetakako irakasle eta ikasleak ere. Dekanoak agurra eta Fakultatearen aurkezpena egin eta zenbait gairi buruzko azalpenak eta informazioa eman ondoren, ikasleek ikastegiko instalazioak eta zerbitzuak bisitatu zituzten, gradu bakoitzeko koordinatzaileekin eta irakasleekin batera.

ZTF-FCTko ikasleen sarrera profila

2014/15 ikasturteko matrikula egin ondoren, ZTF-FCTko graduako ikasleen sarrera profila aztertzeari ekin diogu. Azterketa horretan, graduetara sartu diren ikasleen alderdi hauek zehaztu dira:

- Sarbidea (Batxilergoa, Lanbide Heziketa, 25 urtetik gorakoentzako sarbidea, etab.)
- Gradua aukeratu izana aurretiko izen-ematean; alegia, hasi duten gradua egiteko interesa
- Sartzeko nota tarte
- Bigarren Batxilergoan egindako hautazko irakasgaiak

Sarbideari dagokionez, 2014/15 ikasturtean matrikulatutako ikasleen datuak aztertu dira, eta ondorio hau ateratu da (aurreko ikasturteei ere aplikatu dakieke): Batxilergotik sartzen ez diren pertsonen kopurua oso txikia da. Bi ingeniarietaz Lanbide Heziketatik sartutako ikasleen kopurua bakarrik da esanguratsua (IE: % 17; IK: % 10).







Gure ikasleek aurretik izena ematean egindako **aukerari** dagokionez, gehienek bokazioz ikasten dutela esan daiteke. Lehenengo bi aukerak kontuan hartuz gero, kasu guztietan % 90era iristen dira, hauetan izan ezik: Biologia (% 77), Geologia (% 89), Ingeniaritza Kimikoa (% 84) eta Kimika (% 74).

Azkenik, sartzeko **nota tarteari**³ dagokionez, azterketa oso bat egin da graduako bost mailetarako. Jarraian ZTF-FCTko gradu bakoitzeko sarrera profilaren laburpen bat ikus daiteke (ikus 3a eta 3b irudiak):






³ Sarbide nota formula honen bidez lortzen da; $0,6 \times \text{BatxilergokoBBN} + 0,4 \times \text{FON} + \text{Pisua1} \times \text{HN1} + \text{Pisua2} \times \text{HN2}$

BBN: batez besteko nota; FON: selektibitateko fase orokorreko batez besteko nota (5etik 10era); HN1, HN2: 1. edo 2. hautazko irakasgaiako nota (5etik 10era); Pisua1, Pisua2: 1. edo 2. Hautazko irakasgaiaren pisua, graduaren arabera aldatzen da (0; 0,1 edo 0,2 balioa).

- Biologia, Biokimika eta Biologia Molekularra, eta Bioteknologia: hiru graduetan matrikulatutakoen profila nola altuduna da. Sartzeko notatik abiatuta, matrikulatu guztiak nota tarte altuetan daudela ikus daiteke. Biologiako graduari, gero eta nota altuagoko banaketak egiten dira, eta nota baxuko ikasleen kopurua murriztu egin da. Biokimika eta Biologia Molekularrean eta Bioteknologian, sartzeko notak altuak dira eta beren horretan jarraitzen dute urtez urte; banaketak estuak dira eta nota tarte altuetan egoten dira.
- Geologia: Banaketa ikasturte guztietakoaren antzekoa da. Nota tarte baxuagoak hartzen ditu eta ez dago tarte altuekin matrikulatutako ikaslerik.
- Ingeniaritza kimikoa: Antzeko banaketak ikasturte guztietan. Banaketa lauak, tarte ertainetan oinarrituta. Noten tarte baxuak murrizten ari direla dirudi. 2014/15 ikasturtean igoera nabarmena egon da [12-13] tartean.
- Kimika: Banaketa antzekoa da ikasturte guztietan. Tarte ertainetan oinarritzen da. Tarte txikietako matrikula argi murriztu dela ikus daiteke.
- Fisika: Banaketa antzekoa da ikasturte guztietan. Goiko tartetan oinarritzen da. Gorakada txiki bat ikusi da [9-10] tartean eta murrizketa beheragokoetan. Gradu bikoitzeko ikasleak Fisikakoak ere badirenez, hemen sartzen baditugu noten tarte altuen banaketa hobetu egiten da.
- Ingeniaritza Elektronikoa: Banaketa antzekoa da ikasturte guztietan goiko tartetean (matrikula gutxi), baina ez horrenbeste behekoetan (murriztu egin dira). Nota altuen tartetean balioak txikiak dira. Gradu Bikoitzeko ikasleak IEko ikasleak ere badirenez, hemen sartuz gero banaketa asko hobetzen da goiko tartetean.
- Fisikako eta Ingeniaritza Elektronikoko Gradu Bikoitza: 2014/15 ikasturteko sarbideak bakarrik ditugu. Profila oso altua da, sartzeko nota oso altua delako. Banaketa zabala da eta [12-13] tartean oinarritzen da. Ez dago matrikulatutako ikaslerik beheko tartetean.
- Matematika: Banaketa laua eta antzekoa da ikasturte guztietan, 2014/15 ikasturtean izan ezik; noten beheko tarte argi eta garbi murriztu da, [8-9] tarte nabarmen areagotu da eta bi tarte altuenak areagotu egin dira.



3a irudia.- Matrikularen bilakaera gradu hauetan: Biología (BIO), Biokimika eta Biología Molekularra (BKBM), Bioteknología (BT), Geología (GEO), Ingeniaritza Kimika (IK) eta Kimika (KIM).
(berdea: 2014 / urdina: 2013 / gorria: 2012 / morea: 2011 / ziana: 2010)



3b irudia.- Matrikularen bilakaera gradu hauetan: Fisika (FIS: Fisikako ikasleak; FIS+FIE: Fisikako eta Gradu Bikoitzeko ikasleak), Ingeniaritza Elektronikoa (IE: Ingeniaritza Elektronikoko ikasleak; IE+FIE: IEko eta Gradu Bikoitzeko ikasleak), Fisikako eta IEko Gradu Bikoitza (FIE) eta Matematika (MAT).
 (berdea: 2014 / urdina: 2013 / gorria: 2012 / morea: 2011 / ziana: 2010)

2.04, Programazioa

Urtero gauzatzen diren jardueren artean, ordutegiak eta Gradu Amaierako Lanak garatzeko prozesuarekin zerikusia dutenak nabarmendu behar dira.

"ZTF-FCTko ordutegi jasangarriak" araudia

2012/13 ikasturtean, Dekanotza Taldetik "ZTF-FCTko ordutegi jasangarriak" izeneko Hobekuntza Talde bat sustatu da (3.2 HE). Hasiera batean, horren funtzioa "Zientzia eta Teknologia Fakultateko irakaskuntza ordutegiak sortzeko prozeduraren berrikuspena" egitea zen (ikus 2012/13 ikasturteko Kudeaketa Txostena. Ikasturte horretan lau bilkura egin ziren, eta proposatutako helburu gehienak bete ahal izan ziren. Azkenean, 2014ko martxoaren 13an azken txostena entregatu zitzaion Dekanotza Taldeari. Txosten horren bidez, "Ordutegiak egiteko eta aldatzeko araudia" sortu zen; 2014ko martxoaren 26ko Ikastegiko Batzarrean aurkeztu eta onartu zen.

Gradu Amaierako Lanei buruzko informazio aurkezpenak (GAL)

2012/13 ikasturtean, ikusita 2013/14 ikasturtean gradu gehienetan GALak ezarriko zirela, zenbait informazio hitzaldi egiten hasi ziren. Lehenengoa 2012/13 ikasturtean egin zen, GALEan izena emateko eman beharreko pausoak azaltzeko. 2013/14 ikasturtean, GALEan izena emateko baldintzak betetzen zituzten ikasle guztiei lanen bat esleitu ondoren, beste informazio hitzaldi bat egin zen (2014ko urriaren 9an), honako informazio hau emateko:

- Ikastegiko gradu batzuetako GALa egiteko nahitaezkoak diren prestakuntza osagarriako mintegien datak (Biokimika eta Biologia Molekularra, Geologia, Ingeniaritza Elektronikoa, Ingeniaritza Kimikoa eta Kimika).
- GALEko matrikulazioaren eta defentsaren deialdiak.
- Matrikulatzeko eta defentsa egiteko prozesuan eman beharreko pausoak.
- GALa ebaluatzeko irizpideak.

Hitzaldiak bi zati izan zituen. Lehenengoa Titulazioen Garapeneko dekanordeak eman zuen, eta bertan alderdi orokorrei eta ikastegiko 9 graduentzat komunak diren alderdiei buruzko informazioa eman zen; bigarrenean GALEko koordinatzaileek hitz egin zuten, gradu bakoitzeko informazio espezifikoagoa emanez.

2.05, Eskolak ematea

Ikastegian irakaskuntza-ikasketari erantzuteko gauzatzen diren jardueren artean, tutoretza eta ikasleentzako orientazioa daude. Horien helburua ikasleei beren unibertsitate ikasketetan interesgarria gerta dakiekeen informazioa ematea da.

Tutorearen figura 2001ean sortu zen Fakultatean. Hasiera batean, titulazio hauetan ezarri zen: Fisika, Geologia, Ingeniaritza Elektronikoa eta Matematika. 2002/03 ikasturtean Kimika titulazioan ere sartu zen, eta 2003/04 Ingeniaritza Kimikoan.

Gaur egun, titulazio guztiek dute Tutoretza Plan bat (TP) eta, horren bidez, urtero tutore bat esleitzen zaie ikasle berriei. Prozesu hau ikasturtea hasitakoan egiten da eta titulazioko TPren koordinatzaileak kudeatzen du.


ZTF-FCTn irakasgaiko, mailako eta graduako koordinatzaileen figurak ere ezarrita daude. Horien izenak ikastegiaren web orrialdean daude argitaratuta (4.5 HE). Figura horiek egiten duten lanak balio handia du, ez erantzuten dituzten kontsulten kopuruagatik bakarrik, baita, beren ezagutza maila altua dela eta, ematen duten informazioaren kalitateagatik ere.

Fakultateko Ikasleentzako Arreta Zerbitzua (ZTFIAZ) ikasleen orientaziorako funtsezko pieza da, eta, kontsulta gehienek truke akademikoari eta enpresetako praktikei erreferentzia egiten badiete ere, zerbitzuak eskainitako ikasketekin zerikusia duen edozein gairi erantzuten dio. Horrez gain, ZTFIAZek enplegu eskaintzei buruzko informazio guztia bidaltzen die, posta elektroniko bidez, titulatu berrien banaketa zerrendan dauden guztiei.


2.06, Ebaluazioa eta graduazioa

Prozedura honetan, beste ekintza batzuen artean, Gradu Amaierako Lanarekin zerikusia dutenak sartzen dira. Horiek gaindituz gero, ikaslea graduatu egiten da, eta bertan titulatu berrientzat oso garrantzitsuak diren gaitasunak ebaluatzen dira.

2013/14 ikasturtean, lehen aldiz, ikastegiko gradu guztietako ikasleek egin eta defendatu dituzte Gradu Amaierako Lanak: guztira 201 GAL (4. irudia). Horiei nota jartzeko, beste hainbeste Ebaluazio Epaimahai osatu dira; ikastegiko 149 irakaslek hartu dute parte horietan. Ikasleek lortutako noten batez bestekoa oso ongi altua da (5. irudia).



4. irudia.- ZTF-FCTko ikasleek 2013/14 ikasturtean egindako Gradu Amaierako Lan kopurua.



5. irudia- Ikasleek 2013/14 ikasturtean egindako Gradu Amaierako Lanetan lortutako batez besteko notak.

2013/14 ikasturtean, Konpentsazio Ebaluaziorako Epaimahaiak guztira 25 eskaera jaso zituen (urriko, martxoko eta uztaileko deialdietan), eta horietako bostek Epaimahai Zentralera jo zuten.

2.07, Truke akademikoa

ZTF-FCTko ikasleek **truke akademikoko programekiko** duten interesak bere horretan jarraitzen du. Eskaera gehien izaten dituen programa SÓCRATES-ERASMUS da oraindik ere (aurreko ikasturtean 42 ikaslek hartu dute parte bertan). 9 ikaslek hartu dute parte Beste Norakoak programan eta beste 5ek plaza bat lortu dute Austingo Unibertsitatean (Texas). Azken kasu hori oso esanguratsua da, gure ikasleek nazioartean lehiatu behar izaten baitute plaza horiek lortzeko. Horrez gain, 9 ikaslek Latinoamerikan egonaldiak egin dituzte, UPV/EHU-AL programaren barnean.

7. taulan, azken urteotan Fakultatean izandako ikasle trukeen bilakaera ageri da. Atzeritik 26 ikasle etorri dira: 10 Erasmus programarekin, 14 Latinoamerika programarekin (AL) eta 2 SICUE programarekin.

8. taulan SÓCRATES-ERASMUS truke programetan parte hartu duten irakasle eta ikertzaile kopurua ageri da; eskolak eman dituzte gure ikastegiak bi aldeko hitzarmenak eginak dituen Europako hainbat unibertsitatetan. 9. taulan, 2013/14 ikasturtean truke programetan parte hartu duten ikasleen parte-hartzea ikus daiteke, programen, graduen eta lizentziaturen arabera banatuta.

7. taula.- ZTF-FCTren bi norabidetako truke akademikoen bilakaera, mugikortasun programen arabera sailkatuta. Iturria: ZTFIAZ.

Programa	2008/09		2009/10		2010/11		2011/12		2012/13		2013/14	
	ZTF	Atz.	ZTF	Atz.	ZTF	Atz.	ZTF	Atz.	ZTF	Atz.	ZTF	Atz.
SICUE	14	10	20	8	28	2	20	3	3	5	3	2
SOCRATES-ERASMUS	43	15	52	18	46	13	93	17	42	13	42	10
TASSEP	1	0	2	0	3	1	1	1	4	0	9	0
Latinoamerika eta beste norakoak	3	2	5	0	6	1	9	3	14	10	9	14
Guztira	61	27	79	26	83	17	123	24	63	28	63	26

8. taula.- Azken urteotan mugikortasun programetan parte hartu duten ZTF-FCTko irakasle eta ikertzaileak.

Eskaera urtea	Gauzatze urtea	Irakasle eta ikertzaileak	AZPko langileak
2009/10	2010/11	10	1
2010/11	2011/12	9	1
2011/12	2012/13	7	1
2012/13	2013/14	3	1
2013/14	2014/15	5	1

9. taula.- 2013/14 ikasturtean truke programetan parte hartu duten ikasleen banaketa, programen, graduen eta lizentziaturen arabera. Iturria: ZTFIAZ.

Graduak	BIOG	BKBMG	BTG	FISG	GEOG	IEG	IKG	MATG	KIMG	Guztira
Erasmus	5	6	4	4	3	1	1	5	4	33
Latinoamerika, AL	2	4	2				1			9
BN										
Tx	2	3					3	1		9
Sicue				1				1		2
Graduak guztira	9	13	6	5	3	1	5	7	4	53
Lizentziaturak	BIOL	BKL		FISL	GEOL	IE	IK	MATL	KIML	GuztiraTotal
Erasmus	1				2			1	5	9
Latinoamerika, AL										
BN										
Tx										
Sicue					1					1
Liz./Ing. guztira	1				3			1	5	10
ZTF-FCT guztira										63

2013/14 ikasturtean ikasketak amaitu zituzten ikasleen artean, 71k truke akademikoko programaren batean hartu dute parte beren ikasketek iraun duten bitartean (ikasketak amaitu dituztenen % 19,5).

UPV/EHUK Casa Italia kultura elkartearekin sinatutako hitzarmenari jarraituz, Italiako bizimoduari eta baliabide akademikoei buruzko informazio hitzaldiak egin dira, herrialde horretan ikasteko hautatutako ikasleen egonaldia planifikatzeko. Horrez gain, italiera ikastaroak eman zaizkie ikasleei eta Fakultateko langileei.

2.08, Kanpoko praktikak

Kanpoko praktikak ZTFIAZek kudeatzen ditu, Komunikazio eta Gizarte Hedakuntzako Dekanordearen ardurapean. Aurreko ikasturteetan bezala, 2013/14 ikasturtean Fakultateak Praktiges tresna erabiltzen jarraitu du, ikasleen kanpoko praktikak kudeatzeko. Tresna hau GAUR kudeaketa sistemarekin koordinatuta dago.

Kanpoko praktikak hainbat kategoriatan banatuta daude:

- Curriculumetik kanpoko praktikak: ikasleak, bere titulazioko kredituen % 50 gaindituz gero, egin ditzakeen praktikak dira. Enpresa pribatuetan, erakunde publikoetan eta UPV/EHUrekin lotura duten antolakuntza unitateetan egin daitezke.
- Curriculum praktikak: titulazioaren ikasketa planean zehaztutakoak dira, beste edozein irakasgai bezala. Gure fakultatean, mota honetako praktikak Ingeniaritza Kimikoko Graduan bakarrik daude.
- Programa berezietako praktikak: ikasleek eta ikasketak amaitu berri dituztenek praktikak egitea ahalbidetzen duten programak dira, antolakuntza eta hornidura ekonomiko berezia barne hartzen dutenak. Fakultatean halako bi kudeatzen dira: Santander CRUE CEPYME bekak eta Lehen Aukera programa.

Curriculumetik kanpoko praktikak

Guztira 133 ikaslek egin dituzte curriculumetik kanpoko praktikak enpresetan, UPV/EHUko antolakuntza unitateetan eta beste erakunde batzuetan, hezkuntza lankidetzarako hitzarmenen (HLH) bitartez. Guztira 140 hitzarmen sinatu dira.

1.- Eskainitako praktikak	154
2.- Enpresa aktiboak	160 ⁽⁴⁾
3.- Egindako praktikak	140
4.- Praktiketako ikasleak hartu dituzten enpresak	86
5.- Praktikak egin ditzaketen ikasleak	578 ⁽⁵⁾
6.- Praktikak egin dituzten ikasleak	133
7.- Ikastegiko tutoreak	79
8.- Laguntza poltsaren batezbestekoa	414 hilean
9.- Praktiken batez besteko iraupena (orduak)	273 ordu

Laguntza poltsaren batezbestekoari dagokionez, edizio honetan 17 Lehen Aukera beka eta 14 Santander Crue Cepyme beka kudeatu direla aipatu behar da; horien laguntza poltsen zenbatekoak hilean 500 eta 600 dira, hurrenez hurren. Aipatutako programen barneko hitzarmenak alde batera utzita, 27 praktikak bakarrik zuten laguntza poltsa. Poltsaren

⁴ Azken hiru ikasturteetan ikastegiarekin HLHren bat adostu dutenak.

⁵ Praktikak egin ditzaketen ikasleak horretarako baldintzak betetzen dituztenak dira (bere titulazioko kredituen % 50 gaindituta izatea).

batezbestekoa hilean 414 -koa da, laguntza poltsa izan zuten praktikak bakarrik hartzen badira kontuan (Santander CRUE CEPYME bekak eta Lehen Aukera programa alde batera utzita). Aipatu behar da laguntza poltsarik ez dagoen kasuetan enpresek kotizatu egin behar dutela, eta, ondorioz, askok ez dutela laguntzarik ematen.

Hau da titulazioen araberrako banaketa: Biologiako Lizentziatura (14), Biologiako Gradua (25), Biokimikako Lizentziatura (2), Biokimikako eta Biologia Molekularreko Gradua (15), Fisikako Gradua (8), Geologiako Lizentziatura (1), Ingeniaritza Kimikoa (10), Ingeniaritza Kimikoko Gradua (6), Ingeniaritza Elektronikoko Gradua (1), Matematikako Lizentziatura (6), Matematikako Gradua (5), Kimikako Gradua (9), Kimikako Lizentziatura (9), Bioteknologiako Gradua (14).

10. taulan ZTF-FCTko ikasleen kanpoko praktikei buruzko beste datu batzuk ikus daitezke.

10. taula.- Azken ikasturteetan egindako HLH kopuruaren bilakaera. Iturria: GAUR eta ARTUS (2014-10-23).

Ikasturtea	Matrikulatutako ikasle kop.	Sinatutako HLH kop.	Praktiketako ikasle kop.	HLH kop./ Matrikulatutako ikasle kop. *100
2010/11	2.075	78	67	% 3,76
2011/12	2.186	101	73	% 4,62
2012/13	2.393	134	101	% 5,60
2013/14	2.380	154	133	% 6,47

2013/2014 ikasturtean lau ikaslek "Becas SANTANDER CRUE CEPYME. Prácticas en Empresa" programako bekak jaso dituzte. Programa horren helburua Unibertsitateak ematen duen edozein gradu edo masterretan matrikulatuta dauden ikasleen unibertsitate prestakuntza osatzea eta ikasleak graduatu ondoren beren jardura gauzatuko duten esparru profesionalera gerturatzea da, dagozkien harremanak ezarri eta, hala, etorkizunean lan munduan sartzea erraztuz. Fakultatean praktika horiek honela banatu dira: Biologiako Lizentziatura (3), Biologiako Gradua (1), Ingeniaritza Kimikoko Gradua (2), Ingeniaritza Elektronikoko Gradua (1), Matematikako Lizentziatura (3), Kimikako Gradua (2), Bioteknologiako Gradua (2).

Ingeniaritza Kimikoko Graduak Kanpoko Curriculum Praktikak

Graduko irakaskuntzen kanpoko curriculum praktikak ikasketa planean sartzen dira, eta indarrean dagoen Graduak eta Lehenengo eta Bigarren Zikloko Ikasketen Gestiorako Arautegian ezarritakoari jarraituko diote. Ikasketa planaren barneko nahitaezko irakasgaiak dira eta, beraz, derrigorrez egin behar dira kasuan kasuko titulua eskuratzeko. Fakultatean, Ingeniaritza Kimikoko Graduak bakarrik barne hartzen du modalitate hau.

Aipatutako araudi orokorrak gain, 2013ko abenduaren 18an egindako Ikastegiko Batzarrean Ingeniaritza Kimikoko Graduak Kanpoko Curriculum Praktikei buruzko Araudia onartu zen. 2013/14 ikasturtean, guztira Ingeniaritza Kimikoko Graduak 33 ikasle egin zituzten curriculum praktikak jarraian aipatutako 28 enpresatan: Papresa S.A., V&L CHEM S.L., Michelin España-Portugal S.A., Tecnalia Research and Innovation, Novattia Desarrollos

S.L., Nestlé España S.A., Ikerlan S.Coop., Bostlan S.A., Lantec Group 3000 S.L., Valorización del Azufre S.L.U., Bridgestone Hispania S.A., Ingeniería y Servicios Técnicos S.A., Bunge Ibérica S.A.U., Análisis Biológicos Biotalde S.L., Grupo AN (CACECO), Sener Ingeniería y Sistemas S.A., General Química S.A., Faes Farma, Fluytec S.A., PMG Polmetasa, Recubrimientos Electrolíticos Conductores S.L., BC3 Basque Centre for Climate Change, Fundación EDP, Flexix S.A., Ask Chemicals España S.A.U., Estaciones de Servicio de Gipuzkoa S.A., Deguisa S.A., Kimiker CH.R. S.L.

Lehen Aukera praktikak

Lehen Aukera 2012/2013 ikasturtean titulaturako unibertsitateko ikasleei zuzendutako laguntzen deialdi bat da, helburu gisa beren trebakuntza profesionala hobetzea duena, gaitasuna eskatzen duen enplegu bat gauzatzeko behar izango dituzten abileziak areagotuz. Prestakuntza programa honek modulu teoriko bat eta 3 hileko praktika profesionalak (enpresetan) barne hartzen ditu. Fakultateak kudeatu zuen programa hau, ikasketak amaitu berri zituzten ikastegiko ikasle ohientzat. Laguntzak honela banatu ziren titulazioen artean: Biologiako Lizentziatura (2), Biologiako Gradua (3), Biokimikako Lizentziatura (1), Biokimika eta Biologia Molekularreko Gradua (1), Ingeniaritza Kimikoa (2), Ingeniaritza Elektronikoko Gradua (5), Kimikako Lizentziatura (3). Programa honen ondorio gisa, hiru harreman berri sortu dira: bat Biokimikako Lizentziaturan eta bi Ingeniaritza Elektronikoko Graduan.

2.09, Prestakuntza osagarria

2013/14 ikasturtean, prestakuntza osagarriko zenbait ikastaro eskaini dira ZTF-FCTn:

Sailek eskainitako ikastaroak

- *Instalazio erradiaktiboen ikuskatzaileak prestatzeko ikastaroa*
Kimika Ez-organikoa eta Elektrizitatea eta Elektronika Sailek eskaini zuten. Fakultateko Batzarrak 2014ko otsailean egindako bilkuran onartu zuen. Parte-hartzaile kopurua 6 pertsonakoa izan da, eta irailaren 15etik urriaren 10era egin da.
- *Ingurumena eta Iraunkortasuna*
Landareen Biologia eta Ekologia Sailak eta Garapen Iraunkorrari eta Ingurune Hezkuntzari buruzko UNESCO katedrak eskaini zuten, unibertsitateko graduondoko espezialistaren barnean. Fakultateko Batzarrak 2012ko uztailaren 10ean egindako bilkuran onartu zuen. Parte-hartzaile kopurua 10 pertsonakoa da.
- *Hondakinen Kudeaketa eta Tratamenduak*
Kimika Fisikoa Sailak eskaini zuen, unibertsitateko graduondoko espezialistaren barnean. Fakultateko Batzarrak 2013ko otsailaren 1ean egindako bilkuran onartu zuen. Parte-hartzaile kopurua 10 pertsonakoa izan da.

- *Functional traits in ecology*

Landareen Biologia eta Ekologia Sailak eskaini zuen, unibertsitateko graduondoko espezialistaren barnean. Fakultateko Batzarrak 2013ko otsailaren 6an egindako bilkuran onartu zuen. Parte-hartzaile kopurua 25 pertsonakoa izan da.

GALetarako egin beharreko jardueren barneko ikastaroak

Beste alde batetik, GIBetako koordinatzaileek hala eskatuta, lehen mailako 513 ikasle⁶ (Biologia, Biokimika eta Biologia Molekularra, Ingeniaritza Kimikoa, Matematika eta Kimika) parte hartu dute Leioako Campuseko Bibliotekak, Fakultateak hala eskatuta, antolatu duen "Liburutegiko zerbitzuetarako sarrera" ikastaroan (4.2 HE).

GALaren barnean, prestakuntza osagarriko beste bi ikastaro ere eskaini ziren:

- Bilaketa eta kudeaketa bibliografikoa (2 ordu), UPV/EHUko Bibliotekako langileen eskutik.
- GALaren defentsa eraginkorra (8 ordu), UPV/EHUtik kanpoko langileen eskutik.

Bi mintegi horiek nahitaezkoak dira honako gradu hauetan: Biokimika eta Biologia Molekularra, Geologia, Ingeniaritza Elektronikoa, Ingeniaritza Kimikoa eta Kimika. Guztira 75 ikasle hartu zuten parte ikastaro horietan, graduen arabera honela banatuta: BKBM (22), GEO (4), IE (8), IK (17), K (14). Horrez gain, defentsa eraginkorraren mintegira beste gradu, master eta doktorego batzuetako 50 ikasle bertaratu ziren.

Bi mintegiak amaitutakoan, inkesta bat egin zen bertaratu ziren ikasleen artean. GALaren defentsa eraginkorraren mintegiko inkesten emaitzak pozgarriak izan baziren ere⁷, bilaketa eta kudeaketa bibliografikoari buruzko mintegiak ez zuen horren balorazio ona jaso; beraz, 2014/15 ikasturterako aldaketak proposatu ziren.

2.10, Orientazio profesionala

Gure ikasleen lan munduratzea areagotzera bideratutako jardueren baitan, 2014ko otsailaren 19an Enpresa eta Berrikuntza Teknologikoko Zentroen Aurkezpenerako IX. Jardunaldiak egin ziren.

114 ikasle bertaratu ziren. Jardunaldiari hasiera emateko, Bizkaiko Campuseko Kanpo Harremanen zuzendari Aitzol Lamikizek "Centros de Empleo de la UPV/EHU y más" izeneko hitzaldia eman zuen. 11 enpresak parte hartu zuten: Histocell, Progenika, Ineustar, GAIA-Cluster, Hospital de Cruces, Hospital de Galdakao-Usansolo, NorayBio, Colegio Oficial de Geólogos, AFESA Medio Ambiente, DTS Oabe, Grupo VL-KIMIKER. Ikasleek 7,7 puntuko balorazio orokorra eman zuten (1etik 10erako eskalan).

Fakultatea harremanetan jarri da Bizkaiko Foru Aldundiko Ekonomia Sustatzeko Sailarekin, Euskal Herriko Kimikarien Elkargo Ofizialarekin, Bilbao Metròpoli-30 elkartearekin eta Euskal Herriko Unibertsitatearekin, Talentia ekimena martxan jartzeko. Programa hori aitzindaria da estatúan, eta profesionaltasunerako gaitasunak eskuratzera dago bideratuta.

⁶ 256 gaztelaniaz eta 257 euskaraz.

⁷ "GALaren defentsa eraginkorra" mintegiaren batez besteko balorazioa 4,4koa izan zen (1etik 5erako eskalan).

Lehen edizio pilotua horretarako aukeratutako Ingeniaritza Kimikoko eta Kimikako 20 ikasleri zuzenduta egongo da, eta datozen 4 ikasturteetan gauzatuko da.

2.11, Gorabeherak, erreklamazioak eta iradokizunak

Idazkaritza Akademikoak ikastegian erabilgarri dauden bide desberdinetatik (web orrialdeko iradokizunen buzoia eta iradokizunen buzoia fisiko) jasotako iradokizunen, kexen eta kontsulten kopurua hau izan zen: 11 paperean eta 34 web orrialdeko buzoian. Erantzuteko batez besteko denbora egun batekoa izan zen.

Horrez gain, bai Ikastegiko Batzarrean bai sailetan hainbat iradokizun egiten dira, eta ahal den heinean erantzuten dira. Era berean, instalazioekin eta ikastegiko segurtasunarekin lotura duten gertakariak dagokien tratamendua jasotzen dute.

Bestalde, Ikasleen eta Nazioarteko Harremanen Dekanordetzak Ikasle Kontseiluarekin egindako bilkuretan zenbait erreklamazio eta iradokizun aurkeztu dira, eta horietako askori erantzun ahal izan zaie: Kontseiluari utzitako lokala egokitzea, ikasleen informaziorako iragarki ohol espezifiko bat instalatzea, Fakultateko hall nagusirako ikasketa mahai berriak erostea, jantoki gisa erabiltzen den lekua handitzea, etab.

Halaber, Bioteknologiako ikasleek eskaintzen diren hautazkoen kopurua areagotzeko eskaera egin dute, baita beren prestakuntza akademikoa hobetzea helburu duten beste zenbait eskaera ere. Aurkeztutako arazoak konpontzeko hainbat modu aztertu eta bilatu dira, eta horietako batzuk datorren ikasturtean gauzatu ahal izango dira.

Kimikako Graduak lehen mailako ikasleen (gaztelaniazko taldea) erreklamazioa behar bezala kudeatu da, eta Matematika Aplikatua, Estatistika eta Ikerkuntza Operatiboa Saileko irakaskuntza esleipena aldatzea lortu da.

2.12, Titulua desagerraraztea


2010/11 ikasturtean hasiera eman zitzaion ZTF-FCTko lizentziaturak eta ingeniartzak desagerrarazteko prozesuari. 2013/14 ikasturtea amaitzean, maila batzuk guztiz desagertuta gelditu ziren:

- Biologiako, Fisikako, Geologiako, Matematikako, Kimikako eta Ingeniaritza Kimikoko lizentziaturetako hirugarren mailak.
- Biokimikako lizentziatura eta Ingeniaritza Elektronikoa (2. zikloko titulazioak).

2013/14 ikasturtean, bosgarren mailetan bakarrik eman dira eskolak ondorengo lizentziaturetan: Biologia, Fisika, Geologia, Matematika, Kimika eta Ingeniaritza Kimikoa.

3. prozesua. Graduondokoa eta Ikerketa

Ikastegirako funtsezko prozesu bat da, 2. prozesua bezala (Gradua). Prozesu honen helburua doktorego programak eta Fakultatean egiten den ikerketa lana bultzatzea da, prestakuntza eskaintza hedatuz, jarduera horiek gauzatzeko bitartekoak jarritz eta ikerketa lanaren emaitzak zabaltuz.



Masterrak eta doktoregoa

Masterretako arduradun akademikoak arduratzen dira masterrei buruzko informazioa ZTF-FCTko ikasleen artean zabaltzeaz. Txosten hau amaitzean, Fakultatean honako master eta doktorego programak ematen dira:

Masterrak

INGURUGIROA ETA BALIABIDE MATERIALAK

- Ingurugiroaren Agrobiologia (unibertsitate artekoa)
- Biodibertsitate, Funtzionamendu eta Ekosistemen Gestioa
- Ingurumenaren Kutsadura eta Toxikologia (nagusiki ingelesez)
- Kuaternarioa: Ingurugiro Aldaketak eta Giza Oinatza
- *Marine Environment and Resources* (nazioartekoa, ingelesez)

MATEMATIKA

- Matematikako Ikerketaren Hastapenak (unibertsitate artekoa)
- Modelizazioa eta Ikerketa Matematikoa, Estatistika eta Konputazioa (unibertsitate artekoa)

FISIKA, KIMIKA ETA MATERIALAK

- Zientzia eta Teknologia Kuantikoak (nagusiki ingelesez)
- Materialen Fisika eta Teknologia
- Laserrak eta Beren Aplikazioak Kimikan (QUIMILÁSER) (unibertsitate artekoa)
- Material Berriak (unibertsitate artekoa)
- Kimika Sintetiko eta Industrialak (unibertsitate artekoa)

BIOMEDIKUNTZA, BIZI KALITATEA ETA OSASUNA

- Biologia Molekularra eta Biomedikuntza (unibertsitate artekoa)

INGENIARITZA ETA TEKNOLOGIA

- Prozesu Kimikoen Ingeniaritza eta Garapen Jasangarria

Doktorego programak

INGURUGIROA ETA BALIABIDE NATURALAK

- Ingurugiroaren Agrobiologia (Bikaintasuneranzko Aipamena)
- Biodibertsitate, Funtzionamendu eta Ekosistemen Gestioa (Bikaintasuneranzko Aipamenaren aldeko ebaluazioa du)
- Ingurumenaren Kutsadura eta Toxikologia (Bikaintasuneranzko Aipamena)
- Kuaternarioa: Ingurugiro Aldaketak eta Giza Oinatza (Bikaintasuneranzko Aipamenaren aldeko ebaluazioa du)

Marine Environment and Resources (Bikaintasuneranzko Aipamena)

MATEMATIKA

- Matematika (Bikaintasuneranzko Aipamenaren aldeko ebaluazioa du)

FISIKA, KIMIKA ETA MATERIALAK

- Zientzia eta Teknologia Kuantikoa
- Materialen Zientzia eta Teknologia
- Materialen Fisika eta Teknologia (Bikaintasuneranzko Aipamena)
- Laserrak eta Beren Aplikazioak Kimikan (QUIMILÁSER)
- Kimika Sintetikoa eta Industrialak (Bikaintasuneranzko Aipamena)

BIOMEDIKUNTZA, BIZI KALITATEA ETA OSASUNA

- Biologia Molekularra eta Biomedikuntza

INGENIARITZA ETA TEKNOLOGIA

- Prozesu Kimikoen Ingeniaritza eta Garapen Jasangarria (Bikaintasuneranzko Aipamena)


Horrez gain, graduondoko ikasketen eskaintzaren barnean, Fakultatean honako berezko titulazio hau ematen da: "Ingurumena eta Iraunkortasuna" (30 kreditu).

Aipatu behar da ikastegian ematen diren masterretako batzuetan akreditazioa berritzeko prozesuari ekin zaiola 2013/14 ikasturtean. Prozesu hori UPV/EHUko Master eta

Doktorego Eskolak zuzendu du eta 2014/15 ikasturte honetan amaituko dira. Hona hemen master horiek:

- Ingurugiroaren Agrobiologia
- Biodibertsitate, Funtzionamendu eta Ekosistemen Gestioa
- Ingurumenaren Kutsadura eta Toxikologia
- Kuaternarioa: Ingurugiro Aldaketak eta Giza Oinatza
- Material Berriak
- Kimika Sintetiko eta Industrial

2013/14 ikasturtean, Fakultatean guztira 104 doktorego tesi defendatu ziren, horietako 43 nazioarteko tesi gisa, eta 5 euskaraz egin dira erabat. Datuek defendatutako nazioarteko tesien kopurua asko areagotu dela erakusten dute (6. irudia).



6. irudia.- Azken ikasturte akademikoetan defendatutako doktorego tesien kopuruaren bilakaera.
Iturria: UPV/EHUko Master eta Doktorego Eskola.

Ikerketa

Jarraian Ikerketaren arloko Errektoreordetzak emandako datuak ikus daitezke, ikastegiaren 2013-2014 aldiko ekoizpen zientifiko eta teknologikoaren garrantzia agerian uzten dutenak:


- Hauek dira Fakultateak barne hartzen dituen ikerketa taldeak eta Prestakuntza eta Ikerketa Unitateak (Eusko Jaurlaritzak eta UPV/EHUk finantzatutakoak): 58 ikerketa talde finkatu, UPV/EHUko 18 ikerketa talde 10 Prestakuntza eta Ikerketa Unitate (PIU).
- Ikastegiko irakasle eta ikertzaileen parte-hartzea izan duten 2014ko ikerketa proiektu aktiboak 188 dira. 11. taulan horiek emateko deialdiak daude jasota.

11. taula.- ZTF-FCTko ikertzaile nagusiak dituzten ikerketa proiektu aktiboak dagozkien deialdiak (Iturria: Ikerketaren arloko Errektoreordetza, 2014ko urria)

Proiektu aktiboak (2014ko urria)	Nazioartekoak	Ministerioa	UPV/EHU	EJ	Beste batzuk	Guztira
2010eko deialdia	0	7	3	-	2	12
2011ko deialdia	1	21	5	-		27
2012ko deialdia	2	29	21	5	2	59
2013ko deialdia	3	27	30	4	4	68
2014ko deialdia*	-	1	15	1	5	22
Guztira	6	85	74	10	13	188

* 2014. urtea, amaitu gabe

- 9 azpiegitura proiektu jaso dituzte diru-laguntzak, guztiek UPV/EHUren eskutik, eta guztizko zenbatekoa 175.494 -koa izan da (2013. urtea).
- 2013. urtean, ikastegiko irakasle eta ikertzaileek 10 egonaldi egin dituzten mugikortasun proiektuen baitan, eta 2014an* 18. Ikastegiko irakasle eta ikertzaileek proiektu hauei lotuta egindako egonaldien kopuruaren bilakaera 7. irudian ikus daiteke.



7. irudia.- Irakasle eta ikertzaileek mugikortasun proiektuen baitan egindako egonaldi kopuruaren bilakaera. Iturria: Ikerketaren arloko Errektoreordetza (*2014. urtea amaitu gabe).

- 2013-14 aldian Eusko Jaurlaritzak finantzatutako 9 diru-laguntza eskuratu dira, biltzarrak antolatzeko:
 - Workshop in Applied Topology (WiAT13).
 - Kuaternarioa mendealdeko Pirinioetako eskualdean: diziplina anitzeko ikerketa.
 - Third International Workshop on Multiphysics, Multiscale and Optimization Problems.
 - International Conference on Materials and Applications for Sensors and Transducers.
 - Kristalografia eta Hazkuntza Kristalinoko Talde Bereziaren XXIV. Sinposioa: Kristalografia eta Iraunkortasuna.
 - First Joint International Meeting RSME-SCM-SEMA-SIMAI-UMI.
 - Nitrogenoaren Metabolismoaren XII. Topaketa Nazionalea.
 - International Conference on Martensitic Transformations 2014 (ICOMAT-2014).
 - Mikologiaren XII. Nazio Kongresua.
- IEEBk guztira 116 proiektu eta ikerketa kontraturen izapideak egin ditu, 1.233.375 -ko guztizko zenbatekoarekin.
- Fakultateko kideren baten parte-hartzea duten erregistratutako patenteen kopurua hirukoa da.
- 2013. urtean, ikastegiko irakasle eta ikertzaileek guztira 687 argitalpen zientifiko egin dituzte.

Zabalduz programaren baitan, Fakultatean aurrera jarraitzen dute 9 doktorego tesik, enpresekin lankidetzan; hala, Eusko Jaurlaritza programa horretarako emandako laguntzak 37 dira guztira (iturria: Ikerketaren arloko Errektoreordetza).

2013-2014 aldian, Euskoiker Fundazioak Zientzia eta Teknologia Fakultateko sail desberdinetako ikertzaileak buru zituzten hainbat ikerketa proiektu kudeatu ditu. Proiektu horien finantziazio publiko eta pribatua 335.000 eurokoa da guztira.

Euskoiker Fundazioak Fakultateko ikertzaileek gauzatzeko kudeatutako aholkularitza teknikoaren kontratazioari dagokionez, horien zenbatekoa 6.000 eurokoa izan da aipatutako aldian. Kasu guztietan, enkarguak sektore pribatutik egindakoak izan dira.

Ikastegiko irakasleei esleitutako laguntza teknikorako zerbitzuen kontratazioari dagokionez (esparru publikotik nahiz pribatutik egindakoa), guztizko zenbatekoa 72.365 eurokoa izan da aipatutako aldian.

Laburbilduz, Euskoiker Fundazioak Zientzia eta Teknologia Fakultateko irakasleen enkarguz gauzatutako kudeaketa ekonomikoaren zenbatekoa 413.965 eurokoa izan zen 2013-2014 aldirako. Zenbateko horren helburua ikerketa proiektuak, aholkularitza teknikoak eta laguntza teknikoko zerbitzuak gauzatzea izan zen.

Fakultateak, anfitrioi gisa, beharrezko laguntza logistikoa eta giza baliabideak eman ditu bertan egindako ekitaldi zientifiko guztietan. Horietan guztietan, Fakultateko dekanoa

egon da beti zegokion inaugurazio ekitaldian. Hauek izan dira 2013/14 ikasturte akademikoan egindako ekitaldi zientifikoak:

Zientzia eta Teknologia Fakultateko IV. Ikerkuntza Jardunaldiak

2014ko otsailaren 12an eta 13an IV. Ikerkuntza Jardunaldiak egin ziren Zientzia eta Teknologia Fakultatean, goiburu honekin: **Gazte Ikertzaileak**⁸.

Jardunaldiei 12an, asteazkena, eman zitzaien hasiera, Fakultateko Paraninfoan, Ikerketaren arloko errektoreorde Fernando Plazaola eta ikastegiko dekanoa Esther Domínguez buru zirela.

IV. Jardunaldi hauetan, pediatriako katedradun eta Gurutzetako Ospitaleko Metabolopatie Unitateko zuzendari Pablo Sanjurjo irakaslearen parte-hartzea izan dugu. Zehazki, inaugurazio hitzaldi hau eman zuen: **"Gaixotasun metaboliko arraroak, zientzia beraren osotasunaren erronka"**.

Jardunaldien egunetan, irakasleek bisitaldi gidatuak egin zituzten posterren erakusketara, titulazio desberdinetako ikasleekin (Grande Salle).

Berritasun gisa, edizio honetan **72** ahozko komunikazio aurkeztu ziren, gure ikertzaile gazteen eskutik. Komunikazio horiek gaika banatu ziren: **Biozientziak: Alderdi Molekularrak, Biozientziak: Ingurumen Alderdiak, Fisika eta Ingeniaritza Elektronikoa, Geologia, Matematika, Kimika eta Ingeniaritza Kimikoa**. Komunikazio bakoitza 10 minutukoa izan zen eta ikertzaile bakoitzak bere ikerketaren emaitza esanguratsuenak azaldu zituen, bere inplikazioa eta bertaratutakoei ezagutza transmititzeko ahalmena agerian utziz.

Otsailaren 13an, posterretara egindako bisitaldi gidatuaz gain, **Fakultateko Master eta Doktorego Ikasketen Eskaintzaren Aurkezpena** egin zen. Bertan, Master eta Doktorego Eskolako zuzendari **Gabriel Chotrok**, eta ikastegian ematen diren master eta doktorego programen arduradun akademikoek hartu zuten parte. Hain zuzen ere, programa horietako bakoitzaren ezaugarriak azaldu zituzten labur-labur.

Aurreko edizioetan bezala, ikastegiko web orrialdean Zientzia eta Teknologia Fakultateko IV. Ikerkuntza Jardunaldietan aurkeztutako komunikazio guztiak barne hartzen dituen liburu elektronikoa ikusi ahal izango da.

⁸ Informazioa helbide honetan dago argitaratuta: www.ehu.es/web/ztf-fct/jornadas-investigacion.



2014

Otsailak 12 - 13 de Febrero

Zientzia eta Teknologia Fakultateko IV. Ikerkuntza Jardunaldiak

IV Jornadas de Investigación de la Facultad de Ciencia y Tecnología

www.ztf-fct.org

Otsailaren 12a, asteazkena

09:30 - 19:00 Egun osoan zehar posterren saio jarraia.

10:00 Jardunaldien aurkezpena egingo da Fakultateko Paraninfoan Eusko Jaurlaritzako Zientzilarik Politikoaren Zuzendaria eta Ikerkuntza Dekanordearen eskutik.

10:15 - 11:30 Mintzaldia Pediatria Katedradun Pablo Sanjurjo doktorea, Gurutzeta Hospitalean Metabolopatia unitateko zuzendariarekin. Hitzaldiaren izenburua: 'Gaixotasun metaboliko arraroak, zientzia beraren osotasunaren erronka'.

11:30 - 12:00 Grande Sallen kafea eta posterak bisita gidatuarekin.

12:00 - 13:30 Ahozko komunikazioak aldeberean burutuko dira hurrengo arloen inguruan: 1) Biotzientziak, 2) Fisika eta Ingenieritza Elektronikoa, 3) Matematikak, 4) Geologia, 5) Kimika eta Ingenieritza Kimikoa. Fakultateko gela hauek 1.1 eta 1.10, egingo dira.

Otsailaren 13a, osteguna

09:30 - 19:00 Egun osoan zehar posterren saio jarraia.

11:00 - 12:00 Grande Sallen kafea eta posterak bisita gidatuarekin.

12:00 - 13:00 Master eta Doktoretza ikasketen eskaintzaren aurkezpena Paraninfoan.

Miércoles 12 de febrero

09:30 - 19:00 Sesión continua de pósters durante toda la jornada.

10:00 Inauguración de las Jornadas en el Paraninfo de la Facultad a cargo de la Directora de Política Científica del Gobierno Vasco y del Vicerrector de Investigación.

10:15 - 11:30 Conferencia impartida por el Dr. Pablo Sanjurjo, Catedrático de Pediatría, Director de la Unidad de Metabolopatías del Hospital de Cruces. Título: "Enfermedades Raras Metabólicas: un reto para la ciencia en su conjunto".

11:30 - 12:00 Café en la Grande Salle y visita guiada a los pósters.

12:00 - 13:30 Comunicaciones Orales (estas se celebrarán de forma simultánea para las distintas áreas): I) Biociencias; II) Física, Ingeniería Electrónica y Matemáticas; III) Geología y IV) Química e Ingeniería Química en las aulas 1.1 a 1.10 de la Facultad.

Jueves 13 de febrero

09:30 - 19:00 Sesión continua de pósters durante toda la jornada.

11:00 - 12:00 Café en la Grande Salle y visita guiada a los pósters.

12:00 - 13:00 en el Paraninfo de la Facultad, presentación de "Oferta de los programas de Máster y Doctorado de la Facultad".



Beste ekitaldi zientifiko batzuk

- Estatistikaren Nazioarteko Urtearen ospakizuna. Jardunaldi zientifikoa: "Estatistikan Ikertzea vs. Estatistika Ikerketan". 2013ko urriak 9. Fakultateko Paraninfoa.
- "Kuaternarioa mendebaldeko Pirinioetako eskualdean: diziiplina anitzeko ikerketa" workshop-a. 2013ko urriak 14. Bizkaia Aretoa.
- Fisika Atomiko eta Molekularreko Ikertzaile Gazteen IV. Jardunaldiak. 2014ko urtarrilak 22. Fakultateko Ondoko Gela.
- Zientzia eta Teknologia Fakultateko IV. Ikerkuntza Jardunaldien inaugurazio hitzaldia: **"Gaixotasun metaboliko arraroak, zientzia beraren osotasunaren erronka"**. Hizlaria: Pablo Sanjurjo irakaslea. 2014ko otsailak 12. Fakultateko Paraninfoa.
- Gazte Ikertzaileentzako III. UFI-QOSYC workshop-a. 2014ko ekainak 3. Fakultateko Paraninfoa.
- "Burdina Bizkaian eta bere ingurunea" jardunaldiak. 2014ko ekainak 12. Bizkaia Aretoa.
- One Day Workshop: "New Materials for Sensors and Biosensors". 2014ko ekainak 12. Fakultateko Paraninfoa.
- Mikrobiologiako Ikerketan Hasteko XVIII. Ikastaro Nazionala. 2014ko ekainak 18. Ondoko Gela.
- Mikologiaren XII. Nazioarteko Biltzarra. 2014ko ekainak 18. Bizkaia Aretoa.
- GE3Cren XXIV. Sinposioa. 2014ko ekainak 23. Bizkaia Aretoa.
- First Joint International Meeting RSME-SCM-SEMA-SIMAI-UNI. 2014ko ekainak 30. Zientzia eta Teknologia Fakultatea.
- Nitrogenoaren Metabolismoaren XII. Topaketa Nazionala. 2014ko uztailak 7. Bizkaia Aretoa.

4. prozesua. Giza Baliabideak

Prozesu hau Fakultateko langileekin zerikusia duten hainbat alderdi kudeatzeaz arduratzen da. Honako prozedura hauek barne hartzen ditu:

4.1, Irakasle eta ikertzaileak eta AZPko langileak

4.2, Prestakuntza

4.3, Inplikazioa, sustapena eta aintzatespena



4.1, Irakasle eta ikertzaileak eta AZPko langileak

Irakasleen kudeaketari dagokionez (P4.1.1 prozedura), 2013/14 ikasturtean justifikatutako hainbat ordezkapen eskaera izapidetu ziren, honako arrazoi hauengatik: bajak, amatasun baimenak, irakaskuntza enkarguaren murrizketak, etab.

2013/14 ikasturtearen plangintza sail desberdinek emandako dokumentazioa aztertu ondoren egin zen. Dekanotza Taldeak plazak eskatzeko proposamen bat egin zuen eta ikasturteko Fakultateko Batzar desberdinetan onartu egin zituzten. Honako irizpide hauek erabili ziren aurkeztutako eskaerei zegozkien txostenak egiteko:

1. Euskalduntze prozesuaren aurrerapena indartzea
2. Irakasleen berrikuntza ahalbidetzea
3. Irakasleak mailaz igotzea ahalbidetzea

12. taulan ZTF-FCTko Fakultate Batzarreko proposamenak eta Irakasle-ikertzaileen arloko Errektoreordetzak horiei zegokienez hartutako erabakiak ikus daitezke.



12. taula.- 2013/14 ikasturtean egindako Fakultate Batzarretan aurkeztutako eskaeren eta Irakasle-ikertzaileen arloko Errektoreordetzak horiei zegokienez hartutako erabakien laburpena.

2013ko abenduaren 18 Fakultateko Batzarrean aurkeztutako eskaerak

Saila	Mota	Eskatutako plaza	Arduraldia	Profila	Proposamena	Erabakia
Landareen Biologia eta Ekologia	Baimena	Ikerbasque	Osoa		Aldekoa	Aldekoa

2014ko otsailaren 5ean Fakultateko Batzarrean aurkeztutako eskaerak

Saila	Mota	Eskatutako plaza	Arduraldia	Profila	Proposamena	Erabakia
Landareen Biologia eta Ekologia	LPZ aldaketa	Agregatua	Osoa	Elebiduna	Aldekoa	Landu gabe
Biokimika eta Biologia Molekularra	Berria	Atxikia	Osoa	Elebiduna	Aldekoa	Aldekoa
Elektrizitatea eta Elektronika	Berria LPZ aldaketa LPZ aldaketa Berrikuntza	Katedra Titularra Agregatua Elkartua	Osoa Osoa Osoa 4 ordu	Ez elebiduna Ez elebiduna Elebiduna Ez elebiduna	Aldekoa Aldekoa Aldekoa Aldekoa	Kontrakoa Landu gabe Landu gabe Aldekoa
Fisika Aplikatu II	Berria LPZ aldaketa	Katedra Titularra	Osoa Osoa	Elebiduna Elebiduna	Aldekoa Aldekoa	Kontrakoa Landu gabe
Materia Kondentsatuaren Fisika	Berria	Emeritua	Osoa	Ez elebiduna	Aldekoa	Aldekoa (denbora partziala)
Fisika Teorikoa eta Zientziaren Historia	Berria	Atxikia	Osoa	Elebiduna	Aldekoa	Aldekoa
Geodinamika	LPZ aldaketa	Titularra	Osoa	Elebiduna	Aldekoa	Landu gabe
Ingeniaritza Kimikoa	Berrikuntza Berrikuntza Berria LPZ aldaketa LPZ aldaketa	Elkartua Elkartua Katedra Titularra Atxikia	6 ordu 4 ordu Osoa Osoa Osoa	Ez elebiduna Ez elebiduna Ez elebiduna Elebiduna Elebiduna	Aldekoa Aldekoa Aldekoa Aldekoa Aldekoa	Aldekoa Aldekoa Kontrakoa Landu gabe Aldekoa
Matematika	Berria LPZ aldaketa	Katedra Titularra	Osoa Osoa	Elebiduna Ez elebiduna	Aldekoa Aldekoa	Kontrakoa Landu gabe
Kimika Ez-organikoa	LPZ aldaketa Berrikuntza	Ikastegi aldaketa Elkartua	Osoa 4 ordu	Ez elebiduna Ez elebiduna	Aldekoa Aldekoa	Aldekoa Aldekoa
Kimika Organikoa II	Berria LPZ aldaketa	Katedra Titularra	Osoa Osoa	Elebiduna Elebiduna	Aldekoa Aldekoa	Kontrakoa Landu gabe
Zoologia eta Animalia Zelulen Biologia	Berria	Osoa	Osoa	Elebiduna	Aldekoa	Kontrakoa

2014ko martxoaren 26an Fakultateko Batzarrean aurkeztutako eskaerak

Saila	Mota	Eskatutako plaza	Arduraldia	Profila	Proposamena	Erabakia
Biokimika eta Biologia Molekularra	Berria Berria	Bisitaria Bisitaria	Partz. (3 ordu) Osoa		Aldekoa Aldekoa	Kontrakoa Kontrakoa
Matematika	Baimena Baimena	Ikerbasque Ikerbasque	Osoa Osoa		Aldekoa Aldekoa	Aldekoa Aldekoa
Zoologia eta Animalia Zelulen Biologia	Baimena	Ikerbasque	Osoa		Aldekoa	Aldekoa

2014ko maiatzaren 28an Fakultateko Batzarrean aurkeztutako eskaerak

Saila	Mota	Eskatutako plaza	Arduraldia	Profila	Proposamena	Erabakia
Landareen Biologia eta Ekologia	Berrikuntza	Elkartua	4 ordu	Elebiduna	Aldekoa	Aldekoa
Materia Kondentsatuaren Fisika	Berria	Osoa	Osoa	Ez elebiduna	Aldekoa	Landu gabe
Kimika Analitikoa	Berria	Katedra	Osoa	Ez elebiduna	Aldekoa	Kontrakoa
Kimika Ez-organikoa	Berria	Katedra	Osoa	Ez elebiduna	Aldekoa	Kontrakoa
Elektrizitatea eta Elektronika	Berrikuntza	Elkartua	4 ordu	Elebiduna	Aldekoa	Kontrakoa

2014ko uztailaren 7an Fakultateko Batzarrean aurkeztutako eskaerak

Saila	Mota	Eskatutako plaza	Arduraldia	Profila	Proposamena	Erabakia
Elektrizitatea eta Elektronika	LPZ aldaketa	Titularra	Osoa	Elebiduna	Aldekoa	Landu gabe
Kimika Ez-organikoa	LPZ aldaketa	Titularra	Osoa	Elebiduna	Aldekoa	Landu gabe

Irakasle eta ikertzaileen banaketari dagokionez (13. taula), beren lana Fakultatean gauzatzen duten doktoratu aurreko nahiz ondoko ikertzaileen kopurua handia dela nabarmendu behar da. Multzo hau osatzen duten pertsonen kopurua irakasle kopuruaren antzekoa da, eta pertsona horien guztien artean, % 98 doktoreak dira eta % 45ek profil elebiduna dute. Azken balio horiek pixka bat areagotu dira eta goranzko joera hartu dute. 13. taulan, generoaren arabera banaketa ere ikus daiteke.

Nabarmentzekoa da irakasleen kategorian dagoen genero desberdintasuna; % 61 gizonak dira eta % 39 emakumeak. Ikertzaileen kategorian, emakumeen kopuru erlatiboa % 54koa da. 14. taulan Zientzia eta Teknologia Fakultateari erantsitako Ikerbasque ikertzaileen banaketa ikus daiteke, sailaren arabera (generoaren arabera sailkapena ere barne hartzen du).

Administrazio eta zerbitzueta langileen kudeaketari dagokionez, 15. taulan ikus daitezke ikastegiko langileen kopuruak.

13. taula.- Irakasle eta ikertzaileen banaketa ZTF-FCTn. Iturria: Langileen Gerenteordetza.

Kategoria	Guztira	Doktorea	Elebiduna	Gizonak	Emakumeak
Unibertsitateko katedraduna	124	124	19	93	31
Unibertsitateko titularra	145	145	67	79	66
Escolako titularra	3	0	1	3	0
Osoa	1	1	-	1	-
Agregatua	63	63	47	30	33
Laguntzailea	6	4	4	4	2
Irakasle iraunkorra	342	340	138	210	132
Unib. lan kontratudun bitartekoa	18	16	14	8	10
Escolako lan kontratudun bitartekoa	1	0	1	0	1
Elkartua	9	6	3	8	1
Irakasle atxikia	20	20	20	11	9
Irakasle ez iraunkorra	48	42	38	27	21
Irakasleak guztira	390	382	176	237	153
Ikertzailea	122	71	-	55	67
Prestatzen ari diren praktiketako ikertzaileak (UPV/EHU)	26	0	-	10	16
Prestatzen ari diren praktiketako ikertzaileak (MEC)	11	0	-	4	7
Prestatzen ari diren praktiketako ikertzaileak (EJ)	48	0	-	18	30
Prestatzen ari diren praktiketako ikertzaileak (beste unibertsitate batzuekin tutorekidetzan)	4	0	-	0	4
Prestatzen ari diren doktorego aurreko ikertzaileak (UPV/EHU)	17	0	-	7	10
Prestatzen ari diren doktorego aurreko ikertzaileak (MEC)	7	0	-	3	4
Prestatzen ari diren doktorego aurreko ikertzaileak (EJ)	33	0	-	15	18
Prestatzen ari diren doktorego aurreko ikertzaileak (Zabalduz)	7	0	-	2	5
Ikertzaile bekaduna (UPV/EHU)	19	0	-	14	5
Juan de la Cierva programako ikertzailea	3	3	-	2	1
Ramón y Cajal programako ikertzailea	5	5	-	3	2
Ikertzaile doktorea (EJ)	17	17	-	9	8
Ikertzaile doktorea (Zientziaren Legea)	27	27	-	15	12
Marie Curie programako ikertzailea	1	1	-	0	1
Doktore ikertzaileak	15	15	-	9	6
Ikertzaileak guztira	362	139	-	166	196
Irakasle eta ikertzaileak guztira	752	521	-	403	349

14. taula.- Ikerbasque ikertzaileen banaketa ZTF-FCTn. Iturria: Ikerketaren arloko Errektoreordetza. Parentesi artean gizon/emakume banaketa dago adierazita.

Saila	Fellow 1	Fellow 5	Research Professor	Ikerbasqueko ikertzaileak guztira
Landareen Biologia eta Ekologia	1	1	2	4
Biokimika eta Biologia Molekularra/Biofisika Unitatea	1	0	5	6
Elektrizitatea eta Elektronika			2	2
Fisika Teorikoa eta Zientziaren Historia		1	7	8
Genetika, Antropologia Fisikoa eta Animalien Fisiologia			1	1
Immunologia, Mikrobiologia eta Parasitologia			1	1
Matematika			4	4
Matematika Aplikatua, Estatistika eta Ikerkuntza Operatiboa			1	1
Kimika Fisikoa			5	5
Kimika Organikoa II			1	1
Zoologia eta Animalia Zelulen Biologia			2	2
Guztira	2 (0/2)	2 (1/1)	31 (27/4)	35 (28/7)

15. taula.- ZTF-FCTri esleitutako AZPko langileak (Meta4-tik ateratako datuak).

Lanpostua	Pertsona kop.	Gizonak	Emakumeak
Lanpostu zerrenda (LPZ) eta ikastegiko laguntza langileak			
Administrazio burua	1	-	1
Koordinatzailea	1	-	1
Ikastegiko teknikaria	1	-	1
Bulego burua	1	-	1
Arloko arduraduna	1	-	1
Administrari laguntzaileak (ikastegia)	10	-	10
Dekanoaren idazkaria	1	-	1
Saileko idazkariak	18	3	15
Harrerako/Informazioko laguntzailea	1	1	-
Atezain nagusiak	3	2	1
Mendekoak	5	2	3
Multimedia laguntzaren arduraduna	1	-	1
Multimedia Sistemetako teknikari espezialista	3	2	1
Erreprografiako arduraduna	1	1	-
Laborategiko teknikari espezialistak (ikastegia)	10	5	5
Laborategiko teknikari espezialistak (sailak)	4	2	2
Laborategiko ofiziala (saila)	1	1	-
Irakaskuntzako eta ikerketako teknikari laguntzailea	1	1	-
AZPko langileak guztira (LPZ eta laguntzaileak)	64	20	44
Beste AZPko langile batzuk (UPV/EHuko zerbitzuak eta ikerketa proiektuak)			
Administraria	1	1	-
Gratuondoko administrari laguntzaileak	3	-	3
Ikerketaren kudeaketa teknikaria	5	1	4
Informatikako teknikari espezialista (IISIZ)	3	2	1
SGIker zerbitzuetako teknikaria	11	6	5
SGIker zerbitzuetako teknikari laguntzailea	4	3	1
Laborategiko teknikari espezialista	4	3	1
Beste AZPko langile batzuk guztira	31	16	15
Administrazio eta zerbitzuetako langileak guztira	95	36	59

4.2, Prestakuntza

Administrazio eta zerbitzuetao langileak

Hauek dira Fakultateko administrazio eta zerbitzuetao langileen prestakuntzari (Langileen Ikasketa, Plangintza eta Prestakuntzako Kabineteak antolatutako ikastaroak) buruzko datuak: 31 pertsonak parte hartu dute hainbat arlotako (prebentzioa, iraunkortasuna, web-a, berdintasuna eta ingelesa) 18 prestakuntza ikastarotan. Fakultateak bertaratzeko erraztasunak ematen ditu eta bereziki bultzatzen ditu beharrezkotzat jotzen diren prebentzioaren, iraunkortasunaren eta ikastegiaren kudeaketa hobetzearen arloko ikastaroak.

Bestalde, Euskararen arloko Errektoreordetzak zenbait liberazio eta ikastaro argitaratzen ditu, langileek euskara ikasteko eta hobetzeko helburuarekin. Hauek dira euskara ikasteko liberazioak izan dituzten edo euskara ikastaroetan parte hartu duten Fakultateko AZPko langileak:

- 5 pertsonak egunean 2 orduko liberazioa izan dute euskara ikasteko
- 1 pertsona euskara ikasten aritu da lan ordutegitik kanpo
- 3 pertsonak euskara hobetzeko ikastaroan hartu dute parte
- 1 pertsonak euskarazko testu laburrak sortzeko ikastaroan hartu du parte

Bestalde, administrazio eta zerbitzuetao langile berriei, ikastegira sartzean, Fakultatearen, bere ezaugarrien eta Prozesuen araberrako Kudeaketa Sistemaren (UNIKUDE) aurkezpen bat eskaintzen zaie, beren lana garatzeko prozedurei arreta berezia eskainiz. Horrez gain, gauzatuko duten jardueraren arriskuen ebaluazioari buruzko informazioa ematen zaie (UPV/EHUren Langileen Atarian eskura daiteke), eta ikastegiko langileak eta arduradunak aurkezten zaizkie.

Irakasle eta ikertzaileak

Aurreko ikasturtean egindako tailerraren jarraipen gisa, 2013/14 ikasturtean "ZTF-FCTko ikasleen zeharkako gaitasunen plangintza" prestakuntza tailerraren 2. edizioa sustatu da (1.1 HE, 4.2 HE). Tailer horren bidez, irakasle taldeen eta Gradu Ikasketen Batzordeen (GIB) arteko hausnarketa sustatu nahi izan da, graduako ikasleek eskuratzen dituzten zeharkako gaitasunei (ZG) buruzkoa.

Lortu nahi den helburua Gradu Zeharkako Gaitasunen Mapa egitea da, irakasle taldeekin adostuta; baita lantzeko egokienak diren gaikako arloak edo diziplinak identifikatzea ere. Horretarako, tailerrean honako galdera hauei erantzunak aurkitzen saiatu ziren:

- Zer jardueratan ari dira lantzen ikasleak ZGak?
- Zer jarduera daude elkarren artean koordinatuta?
- Behar bezala planifikatuta al daude?

- Zein dira ikasleek graduako memorian zehaztutako zeharkako gaitasunak ondo garatu ahal izateko antzeman diren beharrak?

GIBek prestakuntza tailerraren 2. edizioaren proposamena aztertu ondoren, lau titulaziok hartu dute parte: Biologiako Gradua, Geologiako Gradua, Ingeniaritza Elektronikoko Gradua eta Ingeniaritza Kimikoko Gradua. Guztira 37 irakaslek osatutako lantaldeek bi koordinatzaile izan dituzte: Kalitate eta Berrikuntzako dekanorde José Luis Pizarro eta dagokion titulazioko koordinatzailea; zehazki:

Biologiako Gradua:

Isabel Salcedo (titulazioko koord.)
 Ainhoa Iglesias (2. maila)
 Amaia Orbea
 Ana Aguirre
 Ana Basaguren (3. maila)
 Ana Isabel Puente (TP koord.)
 Begoña González Moro (4. mailako koord., IB)
 Inés Arana (laborategiko praktiken koord.)
 Manu Soto (4. mailako koord.)
 Maren Ortiz (1. mailako koord.)
 Mercedes Herrera (landa praktiken koord.)
 Mikel Iriondo (4. mailako koord., BE)

Ingeniaritza Kimikoko Gradua:

Andrés T. Aguayo (titulazioko koord.)
 Asier Aranzabal
 Federico Mijangos
 Fernando Varona (1. mailako koord.)
 José Ignacio Gutiérrez (2. mailako koord.)
 José Ignacio Lombraña
 José María Arandes (GAL koord.)
 Juan Ramón González
 Miriam Arabiourrutia
 Rubén López Fonseca (TP koord.)
 Sonia Álvarez (4. mailako koord.)

Ingeniaritza Elektronikoko Gradua:

Joaquín Portilla Rubin (titulazio koord.)
 Aitziber Anakabe Iturriaga
 Amparo Varona Fernández (1. mailako koord.)
 Ibone Lizarraga Mallo (TP koord.)
 Josu Jugo García (GAL koord.)
 Luis Javier Rodríguez Fuentes (LbP koord.)
 Nerea Otegi Urdanpilleta (2. mailako koord.)

Geologiako Gradua:

Pedro Pablo Gil (titulazio koord.)
 Arantxa Aranburu (3. mailako koord.)
 Arturo Apraiz (2. mailako koord.)
 Jesús Ángel Uriarte (4. mailako koord.)
 M^a Cruz Zuluaga
 Manuel Carracedo (1. mailako koord.)
 Miren Mendia

Ikasturteko bigarren lauhilekoan, talde bakoitzak 6 lan bilkura presentzial egin ditu. Egindako lanak honako zeregin hauek barne hartzen ditu:

- ZGak graduan duten integrazioaren diagnostikoa egitea, MEIC-P ereduaren arabera (gaitasunak prestakuntza programetan sartzeko ebaluazio eredu).⁹
- Graduako memoriak barne hartzen dituen zeharkako gaitasunen formulazioa aztertzea, baita ZTF-FCTn zehaztutako 6 ZGekin (eta horien elementuekin) duten korrelazioa ere.¹⁰

⁹ "Evaluar la integración de las competencias en la universidad". M^a José García San Pedro. Ediciones Mensajero. 2013.

¹⁰ Biología: www.ehu.es/web/ztf-fct/ct-b

Geología: www.ehu.es/web/ztf-fct/ct-g

Ingeniaritza Elektronikoa: www.ehu.es/web/ztf-fct/ct-ie

Ingeniaritza Kimikoa: www.ehu.es/web/ztf-fct/ct-iq

- 6 ZGak, horien elementuak eta menperatze mailak aztertzea. Menperatze maila bakoitzerako ereduak proposatzea, hirukote honetatik: i) Ikasketa helburuak, ii) Gauzatu beharreko jarduerak, eta iii) Ebaluazio posiblea.
- Gradu Amaierako Lanak egitean, defendatzean eta kalifikatzean errazen ebalua daitezkeen ZGak identifikatzea, dagozkion GAL araudiek barne hartzen dituzten kalifikazio taulak aztertuz. Modu honetan, gradu bakoitzak hoberen ebaluatzen diren ZGak identifikatu ditu, alegia, titulazioaren barnean beren plangintza eta koordinazioari lehentasun handiena izango dutenak.
- Egindako lanaren laburpen dokumentu bat egitea, graduako irakasle taldeen gida gisa erabiltzeko diseinatutakoa.

2014/15 ikasturtean aurrera jarraitzen duten tailerreko jarduerak, honako etapa hauek landuz:

- Informazio bilkurak graduako irakasleekin, egindako lana zabaltzeko eta irakasle taldeak ZGen plangintzan inplikatzeko.
- Noizean behin, irakasgai desberdinei buruzko informazioa biltzea, ikasleei ZGak garatzea ahalbidetuko diena.
- "ZGen irakasle taldeak" ezartzea, titulazio ZGak horizontalki eta bertikalki koordinatu ahal izateko.

Tailerretan egindako lanaren ondorioz, foro hauetan aurkeztu ziren txosten bana egin ziren:

- Gradu Ikasketen eta Berrikuntzaren arloko bigarren "*IKD – Jendartea*" jardinaldia (2013ko azaroak 14).¹¹
- "*1. Unibertsitate Arteko GALaren Biltzarra. Ezagutzaren gizarterako GALaren erronkak eta aukerak*" (2014ko maiatzak 20).¹²

4.3, Inplikazioa, sustapena eta aintzatespena

ZTF-FCTn balioetako bat ikastegiko parte diren pertsonen bertako bizitza akademikoan nahiz ikasketez kanpokoan duten inplikazio handia da. Irakasleen eta AZPko langileen ezaugarri horrek balio erantsia ematen dio Fakultateari eta ZTF-FCTren marka gizartean hedatzen laguntzen du. Hala, ezaugarri gisa dugun erantzukizun instituzionaleko zentzuak proiektu berriak garatzen laguntzen digu eta eredu eta helburu partekatuak oinarri dituen laneko giroa ahalbidetzen du; betiere, gure Fakultatearentzat onartutako XEDEA eta IKUSPEGIA kontuan hartuta.

¹¹ Ikusi www.ehu.es/ehusfera/beitu/2013/09/10/ikd-jendartea-2013-ikd-bidea-ekinez-egina

¹² Ikusi <http://tfgcongreso.wordpress.com>

Egungo egoera ekonomiko zaila dela eta, nahitaezkoa izan da arlo publikoko sustapen pertsonalerako prozesuak zorrozki mugatzen dituen araudi zehatz bat ezartzea. Dena den, ahal izan dugun guztietan, hala eskatu duten Fakultateko kideen sustapen pertsonala babesten saiatu gara (bai irakasle eta ikertzaileena bai AZPko langileena). Hori horrela, ANECAren edo UNIBASQen akreditazioa zuten irakasle plazen lehiaketa publikorako irteera eskaera guztiak Ikastegiko Batzarrean landu dira, eta guzti-guztiak beharrezko aldeko txostena jaso dute.

Honako aintzatespen ekitaldi hauek egin dira:

1. Diplomen entrega

Zientzia eta Teknologia Fakultateko XII. promozioarentzako diplomen eta beken entrega Alberto Magno ekitaldian egin zitzairen 2012/2013 ikasturtean titulua lortu zuten bederatzi pertsonari. Ekitaldia Unibertsitateko Aula Magnan egin zen, 2013ko azaroaren 14an, zientzialarien zaindari Alberto Magnoren jaiegunean. Iñaki Goirizelaia errektorea aritu zen presidente gisa, eta bertan izan ziren, halaber, Eusko Jaurilaritzaren Zientzia Politikarako zuzendari Miren Bego Urrutia, Leioako alkate M^a Carmen Urbieta, ikastegiko idazkari akademiko Osane Oruetxebarria eta Fakultateko dekanu Esther Domínguez.

Ekitaldi horretan, aintzatespena egin zitzairen titulazio bakoitzeko espediente onena lortu zuten ikasleei: Iosu Lizarralde Ibarbia, Biologian lizentziatua; Ana Carreras González, Biokimikan lizentziatua; Naroa Martinez Braceras, Geologian lizentziatua; Haizea Ziarrusta Intxaurtza, Kimikan lizentziatua; Jone Uria Albizuri, Matematikan lizentziatua; Imanol Gascue Zudaire, Ingeniaritza Kimikoan graduatua; Gartzte Mentxaka Miranda, Biologian graduatua; Iraide Bejarano Ayerbe, Biokimikan graduatua; Arkaitz Rodas Bilbao, Fisikan graduatua; Héctor Martín Aguilar, Ingeniaritza Elektronikoko graduatua.

Horrez gain, aintzatespena egin zitzairen aurreko promozioan (2011/2012 ikasturtea) Sari Berezia jaso zutenei: Maitane Erdozain Ibarra, Biologian lizentziatua; Ibai Artetxe González, Biokimikan lizentziatua; Aitziber Antoran Díaz, Biologian lizentziatua; Iciar Uriarte Hernando, Kimikan lizentziatua; Itxaso Alvarez Rodríguez, Biokimikan graduatua; Mikel Landajuela Larma, Matematikan lizentziatua; Hector Flores Romero, Biokimikan graduatua.

2. 2013ko azaroaren 14an egindako Alberto Magno ekitaldian, aintzatespen publikoa egin zitzairen erretiratu diren eta Fakultatean 25 urtez lan egin duten irakasleei eta administrazio eta zerbitzuetaiko langileei. Dekanoak beren merezimenduak aipatu zituen eta eskerrak eman zizkien egindako lanagatik eta ikastegiaren alde egindako guztiagatik. Ondoren, errektoreak oroigarri bat eman zien erretiratutako irakasle hauei: María Nieves Sánchez Rayo, Begoña Del Hoyo, María Angeles de Prada eta Ana Rallo. AZPko langile Rosa Guliasek ere omenaldia jaso zuen, erretiratu egiten delako.

Dekanoak opari bana eman zien irakasle eta administrazio eta zerbitzuetaiko langile hauei, 25 urte hauetan Fakultatean egindako lanarengatik eskerrak emateko: María José San José Alvarez; Luis Fernando Villate Guinea; Ines del Campo Hagelstrom; Adelina Prado Ruiz; German Bordel García; Carlos Enrique Prieto Sierra; José Ignacio Peña Calvo;

José Angel Peña García; José Miguel Aurrekoetxea Fernández; Miren Nerea Zabala Unzu; Martín Blas Pérez Pinilla; Luis Angel Fernández Cuadrado; María Dolores Agiriano Nafarrate eta María Asunción López Larrea.

3. Beste aintzatespen batzuk

2013/2014 ikasturteko lehenengo ikastegiko batzarrean, urriaren 2an, dekanok publikoki zoriondu zituen ikastegiko Matematika irakasleak, UPV/EHU Matematikaren arloan munduko 75 unibertsitate onenen artean dagoelako Shanghaiko azken sailkapenaren arabera.

Halaber, zorionak eman zizkion publikoki BCAMeko (Matematika Aplikatuaren Euskal Zentroa) zuzendari eta Matematika Saileko irakasle Luis Vegari, BCAM zentroak jasotako "Severo Ochoa" bikaintasun sariarengatik.

2013ko abenduaren 20an ohiko Gabonetako Ekitaldi egin zen Fakultateko Paraninfoan. Ekitaldi horretan aintzatespena egin zitzaion irakasleei, AZPko langileei eta ikasleei. Hauek izan ziren omenaldia jaso zuten pertsonak: Fakultateko GIBetako kideak; Mart Macho irakaslea, Unibertsitateko Arkitektura eta Lanen Zerbitzuko langile Pedro Pérez (Fullereno eskulturaren egile materiala); eta PIKASLE taldea osatzen duten Matematikako irakasleak.

Ekitaldi horretan bertan, XXV. Alberto Magno Literatura Lehiaketaren sariak entregatu ziren.

Bestalde, Fakultateak TerBi elkartearen saria jaso zuen. Dekano ohi Leonardo Lorente irakasleak jaso zuen, lehiaketaren sustatzaile gisa. Azkenik, Gabonetako lunch tradizionala egin zen Grande Salle aretoan, ikastegiko langile guztiei merezi zuten omenaldia eskaintzeko.


2014ko otsailaren 28an, "Kimika Bizirik" programan parte hartu zuten irakasleek eta AZPko langileek bazkari bat egin zuten Olatz Zuloagarekin (dekanoa eta programaren koordinatzailea), Euskal Autonomia Erkidegoko DBHko eta Batxilergoko ikasle gazteen artean kimika zabaltzeko asmoz beren borondatez eta bestelako interesik gabe egin duten lanaren aintzatespen gisa.

Maiatzaren 29an, Martín Rivas irakaslearentzako omenaldi bat egin zen Paraninfoan, bere erretiroarengatik (arauzko adina bete duelako). Ekitaldi horretan, Rivas doktoreak bere azken eskola eman zuen, hitzaldi hau eskainiz: "Historias y sucesos, amores y desamores, reflexiones y logros tras 44 años de actividad".

2013/2014 ikasturteko azkeneko Fakultateko Batzarrean, dekanok aipamen publikoa egin zion Fakultateko Ingeniaritza Kimikoa Sailari, UPV/EHU lehen postuan kokatzeagatik Granadako Unibertsitateak egiten duen Ingeniaritza Kimikoaren arloko sailkapenean.

5. prozesua. Ekonomia eta Administrazioa

Laguntza prozesu hau ohiko eta ezohiko bidetik lortutako finantza baliabideak modu eraginkorrean kudeatzeaz arduratzen da, Fakultateko irakaskuntza eta ikerketa jarduerak ahalik eta ondoen gauza daitezzen.



UPV/EHUK bere aurrekontuak urte naturalen arabera onartzen ditu, beraz, txosten honetan 2013ko Txosten Ekonomikoa eta 2014ko ekitaldiko aurrekontua aipatu behar ditugu. 2013ko Txosten Ekonomikoa, Fakultateko Batzorde Ekonomikoak onartu ondoren, Ikastegiko Batzarrean aurkeztu zen, 2014ko martxoaren 26an, zegokion onarpena eman ziezaioten.¹³

Bestalde, UPV/EHUK Fakultateari esleitutako aurrekontuari dagokionez, aurreko urteko zenbatekoari eutsi zaio: 128.988,04 .

Ezohiko finantziazio gisa lortutako kopuruari dagokionez, 28.821,281 -koa izan zen. Hauek dira finantziazio horren iturri nagusiak:

- i) Fakultateak EHUndu deialdian izandako parte-hartzea.
- ii) Lokalak eta industria nabea alokatzeagatik jasotako diru-sarrerak.
- iii) Ekoscan ingurumen ziurtagiriari bere horretan eusteko deialdian izandako parte-hartzea.
- iv) Bizkaiko Campuseko Errektoreordetzaren kultura jardueretarako deialdia eta ikasleen jardueretarako diru-laguntzak.

Batzorde Ekonomikoaren laguntzarekin, 2014ko ikastegiko irakaskuntza azpiegituraren eskaera kudeatu da. Kudeaketa horren ondorio gisa, Fakultateak 98.104,23 -ko zenbatekoa jaso du Campuseko Errektoreordetzaren eskutik. 2014ko Txosten Ekonomikoa ekitaldia amaitzean aurkeztuko da Ikastegiko Batzarrean.

¹³ 2013ko Txosten Ekonomikoa, Batzarrak onartutakoa, ikastegiaren intranetean kontsulta daiteke.

2013/14 ikasturtean, sailei eta irakasleei eragiten dieten prozedurak hobetze aldera, bi hilerak murriztu dira erreprografia eta posta gastuen barneko fakturazio aldiak. Horrez gain, Idazkaritzako dokumentazio ofiziala digitalizatzeko prozesuak aurrera jarraitu du, 2010/11 ikasturtean hasitako lanari jarraipena emanez. Une honetan, Fakultatearen artxibo digital hori sortu berri den UPV/EHUren kudeatzaile dokumentalean (EHDocu izeneko) integratzeko kudeaketa lanak gauzatzen ari gara.

Fakultateko administrazio buruak, administrazio zerbitzuen arduradun gisa, ikastegiaren menpe dauden zerbitzuen kudeaketaz arduratzen diren pertsonen taldea zuzentzen du.

Hauek osatzen dute talde hori: koordinatzailea, ikastegiko teknikaria, Idazkaritzako bulego burua, ZTFIAZ arloko arduraduna eta giza baliabideen 4. prozesuan jasotako gainerako administrazio langile, teknikari eta menpeko langile guztiak (lanpostu zerrenda (LPZ) eta ikastegiko laguntzaileak).

Pertsonei dagokionez, talde honen ardura da bajen eta liberazioen ondoriozko ordezkapenak betetzea eta laguntzeko langileen beharrari erantzutea, baita langile horiek ikastegian behar bezala sartzeari ere.

Talde honi dagokio, halaber, administrazio eta zerbitzu-talderako langileei dagozkien baimenak, lizentziak eta beste kudeaketa batzuk kontrolatzea, zereginak banatzea eta horiek gauzatzean sor daitezkeen gertakari guztiak konpontzea.

Kudeaketa akademiko-administratiboari dagokionez, administrazio buruak zuzendutako taldeak irakaskuntza eskaintzaren, ordutegien eta gela grabazioa egiten du, baita beste hainbat arlotako kudeaketak ere: matrikulazioa, lekualdaketa, aktak, ziurtagirien igorpena, titulu eskaerak, etab.

Kudeaketa ekonomikoaren eta ondarearen eremuari dagokionez, ikastegiko aurrekontua prestatzeaz, kudeatzeaz eta likidatzeaz arduratzen da, baita tesi epaimahaien eta irakaskuntza plazen kudeaketa ekonomikoaz ere. Horrez gain, honako gastu hauen barneko nahiz kanpoko fakturazioa ere gauzatzen du: lokalen erabilera, Feder nabeko espazioen alokairua, gela eta laborategietarako irakaskuntza ekipamenduaren erosketa, inbentarioa eta horren eguneratzea, egin Fakultatearen eraikinetan egin beharreko obrak eta mantentze-lanak, eta horietarako sarbidearen kudeaketa eta kontrola.

Ingurumenari dagokionez, Ingurumena Hobetzeko Planak egin, ezarri eta ebaluatu ditu; horien egokitasunari esker, ikastegiak IHOBek emandako EKOSCAN ziurtagiria jaso du. Fakultatearen hondakin kimiko eta biologikoen kudeaketa gauzatzen du, eta baita beste hondakin ez arriskutsu batzuen ere; parte hartzen du, halaber, prebentzioarekin eta ikastegiko langileen, ikasleen eta bisitarien segurtasunarekin zerikusia duten arlo guztietan, eta suteen aurkako sistema zaintzen eta kontrolatzen du.

Bestalde, talde hau UNIKUDE aplikazioan jasotako ikastegiko prozeduren adierazleen mantentze-lanaz eta prozedurak berrikustez arduratzen da. Araudiaren arabera dagozkien Fakultate Batzordeetan parte hartzen dute gainera.


Horrez gain, administrazio taldea hurrengo prozesuan (6. Baliabide materialak eta zerbitzuak) jasotako hainbat erosketa gauzatzeaz arduratu da.

6. prozesua. Baliabide Materialak eta Zerbitzuak

Laguntza prozesu honen xedea Fakultateko azpiegiturak modu eraginkorrean kudeatzea eta horien hobekuntza sustatzea da, irakaskuntza eta ikerketa zereginak hobeto gauzatzeko. Horrez gain, ZTF-FCTko langileen laneko segurtasuna eta osasuna zaintzeaz eta Fakultatearen jarduerak ingurumenean duten inpaktua murrizteaz arduratzen da. Ekoscan ziurtagiriaren kudeaketa barne hartzen du eta honako prozedura hauek osatzen dute:

6.1, Lokalak eta zerbitzuak

6.2, Segurtasuna, prebentzioa eta ingurumena



6.1, Lokalak eta zerbitzuak

Irakaskuntza espazioetan dagoen azpiegitura hobetzen jarraitzeko, bideo proiektagailuak jarri dira 0.19 eta 0.19 A irakaskuntza laborategi berrietan, lokal horietan emandako eskola praktikoak errazteko. Bestalde, biniloak jarri dira 0.31 laborategiko leihoetan, Biologiako irakaskuntza laborategien koordinatzaileak hala eskatuta.

Horrez gain, **informatika geletako** ordenagailuak aldatzeko politikarekin aurrera jarraitu da, I.1 gelako 32 ordenagailu ordeztuz.

Irakaskuntza nahiz ikerketa jardueri babesa emateko helburuarekin, Fakultateak **bideokonferentzia** areto berri baten instalazioa kudeatu du, 7. aretoan, ekipamendu aurreratuenarekin.

Bestalde, 2013/14 ikasturtean, Fakultateak honako lokal hauek jarri ditu ikasleen esku:

- 1. mintegia, sarrera libreko informatika gelaren aurrean kokatua, talde lanak egiteko.

- 0.9 gela, altzari mugikorrek hornitua eta ordenagailuekin lan egiteko prestatua. Gela horretan irakaskuntzarik ez dagoen orduetan erabili ahal izango da.
- 2.12 gela, ikasteko (1.5 gelaren ordez).

Lokal hauek **berriz antolatu** dira: CD5.P1.1 **mintegia**, Estratigrafia eta Paleontologia Sailekoa; F1.S2.7 **ikerketa laborategia** eta F1.S2.9 bulegoa, Zoologia eta Animalia Zelulen Biologia Sailekoak.

Bestalde, ikastegiko beste lokal batzuetako **segurtasuna hobetzera** bideratutako jarduerak egin dira. Ildo horretatik, Zelulen Biologia taldeari dagozkion bi ikerketa laborategi komunikatu dira.

Horrez gain, Fakultateari **ZTFIAZen bulegoa** berrantolatzea onartu zaio, berregituratzeko, zabaltzeko eta aldatzeko deialdiaren barnean, ikasleek hobeko ikusteko moduan jartzeko asmoz. Atezaindegiko biltegia ere berregituratu da, beste biltegi bat jarriz. Dekanoaren eta bere idazkariaren bulegoak ere egokitu egin dira.

Sarbidea eta igogailuaren egoera hobetu dira, eta **industria nabeko** suteetako ur hargune hornitua (SUH) lekuz aldatu da.

2013/14 ikasturtean, ikastegiko **biltegien** datu-base bat sortu da eta kodifikatu egin dira. Horrez gain, biltegi berri bat jarri da (B6.P2.1 lokala).

Atal horren barnean, Paraninfoaren beheko aldean dagoen patioan (Geologia eta Ekologia arloetako ikertzaileek biltegi gisa erabiltzen dute) pilatutako ontziak kendu dira, eta patioa garbitu eta berrantolatu da.

Eraginkortasun energetikoa hobetzeko, **LED erako argi fluoreszenteak** instalatu dira (EEEk, Energiaren Euskal Erakundeak, emandakoak) A eraikinaren eta B eraikinaren beheko solairuetan, eta lehen solairuko hall nagusian.

Prozesu honen barnean gauzatutako ekintzen artean, hauek ere sartzen dira:

- Ingeniaritza Kimikoa Sailak biltegi gisa erabiltzen duen B1 eraikinaren behealdeko lokaleko hezetasunak kentzea.
- CD4.P1.12 laborategia eta CD5. P2.2 bulegoa margotzea, usainak kentzeko.
- Azpiegitura informatikoa berrerabiltzea. Graduak eta graduondoko irakaskuntzarako ordenagailuak eta pantailak banatu dira hala eskatu duten sailen artean.
- Ikasgeletarako, irakaskuntza laborategietarako eta ikerketa laborategietarako altzariak eskatzea. 1.4 gelako altzari finkoak berritzeko altzari berriak eman dira.
- Campuseko Gerenteordetzak kontzeptu honi esleitutako aurrekontuak jasandako murrizketa dela eta, ikastegian lehendik dauden altzariak berrerabiltzea.
- Lau informazio panel berri erostea.
- Oroitzapenezko plana erostea eta informazio atrila instalatzea eskalan egindako Fullerenoren molekularen modeloa.

6.2, Segurtasuna, prebentzioa eta ingurumena

Segurtasunarekin eta prebentzioarekin lotutako jardueri dagokienez, 2014an produktu kimikoen biltegia ireki zela nabarmendu behar da, hondakinen biltegiaren ondoan (ZTF-FCTko zabaltzan). Horretarako, Eusko Jaurlaritzaren Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailak **produktu kimikoak biltegitratzeko baimena ematen duen ziurtagiria** eman zigun (2013-11-18). Biltegi hau irekitzearen ondorioz, orain arte zabaltzaren kanpoaldean eta Fakultateko laborategietan biltegitratuta zeuden produktuak bertatik kendu dira. Horrez gain, produktu kimikoen eta hondakinen biltegiak suteen sistema zentralarekin konektatu dira, eta sirena bat instalatu da zabaltzan, alarma kasuan aktiba dadin. Azkenik, biltegiak kontrolatzeko protokoloak ezarri dira, araudiak eskatzen duen moduan.

Jarraian Fakultatean gauzatu diren **segurtasunaren** arloko **beste jarduketa batzuk** daude zehaztuta:

- Segurtasun sarrailek instalatzea Fakultateko F eraikineko Biologiako zerbitzu komunetan, industria nabera sartzeko atean eta Paraninfoaren azpian kokatutako biltegian. Horri esker, larrialdi kasuan, ebakuazioa giltzarik erabili gabe egin ahal izango da.
- Animalia Zelulen Biologiaren Ikerketa Taldearen bi laborategi komunikatzea.
- Leihoak jartzea halakorik ez zuten laborategietako ateetan, gerta daitezkeen istripuak kontrolatu ahal izateko.
- CD2-ko klimatizazio ekipamendua ordeztzea.
- Fakultateko irakaskuntza laborategietako erauzketa kanpai guztiak aztertzea eta horien mantentze-lanak egitea.
- Segurtasun sistema instalatzea ikastegirako sarbidea kontrolatzeko Fakultatearen 17 ateetan.

Gauzatutako beste ekintza multzo bat Fakultateko **suteen aurkako sistema** hobetzera eta **Larrialdietarako eta Autobabeserako Planeko** gomendioak betetzera daude bideratuta.

- Industria nabeko suteen zentrala kontrol gunearekin eta Fakultateko alarmen zentralarekin konektatzea.
- SUHetako bat lekuz aldatzea, errazago eskuratu ahal izateko.
- Fakultateko suaren kontrako ateak kodifikatzea.
- Sute detektagailuak instalatzea halakorik ez zuten lokaletan eta korridoreetan edo lokal berrietan.
- Zabaltzako biltegiak suteen sistema zentralarekin konektatzea eta alarma kasuan aktibatuko den sirena bat instalatzea.
- Fakultateko Larrialdietarako eta Autobabeserako Planari buruzko planoak eta dokumentazio grafikoa egitea eta dagokien lekuan kokatzea.
- Fakultatearen web orrialdea eguneratzea, Larrialdietarako eta Autobabeserako Planari buruzko informazioarekin, Fakultateko langile guztiek horren berri izan dezaten.

- Fakultatera sartzeko ateak errotulatzeari, Larrialdietarako eta Autobabeserako Planeko nomenklaturari jarraituz.

Segurtasunaren arloko lehentasunezko bi multzo handienetan sartzen diren jarduketak horiez gain, **beste ekintza batzuk** ere gauzatu dira:

- Fakultateko larrialdietarako irteeretan zutoinak jar ditzatela eskatzea, ibilgailuek modu desegokian aparka ez dezaten.
- Hegoaldeko Bidean argiak instalatzea.
- Freon gasa ordeztzea informatika geletako, Gradu Aretoko eta Ondoko Gelako aire girotuaren ekipotetan.
- CD2 eraikineko aireztapen sistema aztertzea eta sistemak behar bezala funtzionatzeko beharrezko kudeaketak egitea.
- Fakultateko irakaskuntza eta ikerketa laborategietan instalatutako Diphoterine kit-ak aldatzea.
- Ecocat enpresaren bidez, 17.500 kg hondakin kimiko kudeatzea.
- Consenur enpresaren bidez, 225 kg hondakin biosanitario kudeatzea.
- Fakultateko irakasle eta ikertzaileek eta AZPko langileek UPV/EHUK prebentzio arloan antolatutako prestakuntza ikastaro desberdinetan parte hartzea.

Ingurumenarekin zerikusia duten jardueri dagokienez, aurreikusitako Ingurumen Kudeaketarako Sistemaren eta Fakultateak gauzatutako bigarren Hobekuntza Planaren (2013. urtekoa) ikuskapena egin da. Ikuskapen horren ondorioz, Fakultateak Ekoscan ziurtagiria berritu du, Ihobe Ingurumen Kudeaketarako Sozietate Publikoak emandakoa (8. irudia).

Egungo txostena egin ari garen garai honetan, 2014ko hirugarren Ingurumen Hobekuntza Planean jasotako ekintzak gauzatzen ari gara (16. taula), honako helburu hauekin: kontsumo elektrikoa murriztea, papera eta ontzi edo toner hondakinak murriztea, produktu kimikoen biltegiatzea hobetzea eta emisio atmosferikoak gutxitzea.



ERREGISTRO-ZIURTAGIRIA CERTIFICADO DE REGISTRO

Ihobe, S.A. Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoak egiaztatzen du:
La Sociedad Pública de Gestión Ambiental Ihobe, S.A. certifica que:

FACULTAD DE CIENCIA Y TECNOLOGÍA CAMPUS DE BIZKAIA (UPV/EHU)

B° Sarriena S/N • 48940 Leioa • Bizkaia

erakundeak / ha implantado en

UPV/EHU-ko Bizkaiko Campuseko Zientzia eta Teknologia Fakultatean

A eta B eraikinetako irakaskuntza jarduerak

*Actividades de docencia realizadas en los edificios A y B
de la Facultad de Ciencia y Tecnología-Campus de Bizkaia (UPV/EHU)*



Ingurumena Hobetzeko Ekoscan® Kudeaketa Sistema ezarri duela.
enpresak ikuskatu du sistema hori, eta Ihoberen 2004ko Ekoscan Arauarekin
bat dator 0295-14 (7) erregistro-zenbakia eman zaio.

*un Sistema de Gestión de la Mejora Ambiental Ekoscan® que ha sido auditado por
y encontrado conforme con las exigencias de la Norma Ekoscan 2004
de Ihobe y ha sido registrada con el número 0295-14 (7).*

Ziurtagiri hau, 0295-14 zenbakidun ziurtagiriaren zati bat da.


Este Certificado forma parte del Certificado de Registro identificado con el número 0295-14.

Erregistro-data: 2014ko ekainaren 30a
Fecha de Registro: 30 de junio de 2014
Ziurtagiriaren balio-data*: 2017ko martxoaren 21a
Validez del certificado*: 21 de marzo de 2017

Izenpetula / Firmado

Javier Aguirre Orcajo
Ihobeko Zuzendari Nagusia
Director General de Ihobe

Bilbo, 2014ko uztailaren 30ean
Bilbao, 30 de julio de 2014



(*) www.ihobe.net web orrian duzue Ihoberen 2004ko Ekoscan
Arauaaren arabera ziurtagiriak dituzten enpresen zerrenda eguneratua.
(*) El listado actualizado de organizaciones que mantienen las condiciones
de certificación de acuerdo con la Norma Ekoscan 2004 de Ihobe está disponible
en la página web: www.ihobe.net.

ingurumena.net
Gure esku dago
está en nuestras manos



16. taula. 2014ko Ingurumen Hobekuntza Planean ezarritako ekintzak.


Helburua	Segimendu adierazlea	Ekintza
Kontsumo elektrikoa % 2 murriztea	kW erabiltzaileko	Korridoreetako (A eta B eraikinak) fluoreszenteen ordeztu kontsumo txikiko "led" lanparak jartzea B eraikineko bigarren solairuko korridoreko argiak egokitzea, gehiegizko argiztapena saihesteko
Erabilitako papera % 2 murriztea	kg erabiltzaileko	Komunetan eskuak lehertzeko gailu elektrikoak instalatzen jarraitzea Fotokopiagailuetan erabilitako paperarentzako laugarren erretilua instala dadila eskatzea Ordenagailuak konfiguratzeko kanpaina bat egitea, zuzenean zuri-beltzean eta bi aurpegitara inprima dezaten Matrikula aldatzeko eskaeren prozedura aldatzea
Ontzien hondakinak (edukiontzia horia) % 2 murriztea	kg erabiltzaileko	Kafe makinetan "edalontzirik gabeko" aukera erabil dadila sustatzeko katiluak eskuratzea, eta aldi berean plastikozko ontziak murrizteko kanpaina bat egitea
Toner hondakinak % 2 murriztea	kg erabiltzaileko	Birziklatutako tonerrak erostea
Emisio atmosferikoak % 2 gutxitzea	GWP (berotze globaleko ahalmena)	Irakaskuntza laborategietako kanpaien funtzionamendua berrikustea Informatika geletako eta multimedia aretoetako klimatizagailuen gasa (R22 freona) ordeztzea
Produktu kimikoen biltegian jasotako produktuak %2 areagotzea	m ³ kg-ko	Produktu kimikoen biltegitratzea hobetzea eta kontrolatzea, laborategietan biltegitratzea saihestuz

7. prozesua. Euskara eta Eleaniztasuna

Laguntza prozesu honen xedea Fakultateko jarduketa eremu desberdinetan euskararen erabilera zuzena areagotzeko ekimenak sustatzea eta barne eta kanpo komunikazioetan bi hizkuntzen erabilera bermatzea da. Irakasgaiak ofizialak ez diren hizkuntzetan ematea ere babesten du. Bi prozedura biltzen ditu:

7.1, Euskara

7.2, Ofizialak ez diren beste hizkuntza batzuk



7.1, Euskara

Azpiprozesu honen helburua Fakultatearen jarduketa esparru desberdinetan euskararen erabilera areagotzeko ekimenak sustatzea da. Horrez gain, elebitasuna bermatzen du ikastegiko barneko eta kanpoko komunikazioetan.

2013/14 ikasturtean ikastegiko titulazioetan euskaraz eskainitako kredituak 17. taulan (lizentziaturak) eta 18. taulan (graduak) bildu dira.

Praktiges sistemak eskainitako praktika programaren baitan (HLH), Letren Fakultateko Itzulpengintza eta Interpretazioa titulazioko ikasle bat izan dugu, 2014ko ekainera bitartean itzulpen lanetan jardun dena. Dekanotza Taldeak sortutako dokumentazioa bi hizkuntzetan egotea da helburua.

Ikastegiko Batzarretan ere aldibereko itzulpen zerbitzua izan dugu.

17. taula.- Euskaraz eskainitako kredituak, lizentziaturen arabera segmentatuta. Iturria: ARTUS

Titulazioa		Guztira
Biologiako Lizentziatura	Enborrekoak	55,5
	Derrigorrezkoak	0
	Hautazkoak	160
Fisikako Lizentziatura	Enborrekoak	82,5
	Derrigorrezkoak	6
	Hautazkoak	58,5
Geologiako Lizentziatura	Enborrekoak	117
	Derrigorrezkoak	16,5
	Hautazkoak	42
Matematikako Lizentziatura	Enborrekoak	69
	Derrigorrezkoak	7,5
	Hautazkoak	33
Kimikako Lizentziatura	Enborrekoak	105
	Derrigorrezkoak	0
	Hautazkoak	120
Biokimikako Lizentziatura	Enborrekoak	10,5
	Derrigorrezkoak	18
	Hautazkoak	37,5
Ingeniaritza Kimikoa	Enborrekoak	78
	Derrigorrezkoak	27
	Hautazkoak	12
Ingeniaritza Elektronikoa	Enborrekoak	12
	Derrigorrezkoak	0
	Hautazkoak	15

18. taula.- Euskaraz eskainitako kredituak, graduen arabera segmentatuta. Iturria: GAUR

Titulazioa		1. maila	2. maila	3. maila	4. maila	Maila zehaztugabea	Guztira	GAL
Biologiako Gradua	Oinarrizkoa	54	6	-	-	-	60	-
	Derrigorrezkoak	6	54	48	-	-	108	12
	Hautazkoak	-	-	-	12	109,5	121,5	-
Fisikako Gradua	Oinarrizkoa	60	-	-	-	-	60	-
	Derrigorrezkoak	-	60	54	12	-	126	12
	Hautazkoak	-	-	-	24	30	54	-
